

Hegats

Literatur aldizkaria

15/16



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur

aldizkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur aldizkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA KONTSEILUA

Burua: Andolin Eguzkitza
Kideak: Rikardo Arregi
Jerardo Elortza
Kirmen Uribe
Koordinatzailea: Maite Gonzalez Esnal

Diseinua: Txema Aranaz
Maite Gonzalez Esnal

Maketa: Lamia
Curia, 25-sotoa. 31001 Iruña

Euskal Idazleen Elkarte

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
TF.: 943-27 69 99. Faxe: 943-27 72 88

ISSN: 1130-2445
L.G.: Na-359/90

Sarrera. Andolin Eguzkitza	7
----------------------------------	---

Literaturbideak

Bitoriano Gandiaga. <i>Ariketa</i>	13
Juan Ramon Madariaga. <i>7 poema</i>	23
William Faulkner. <i>Arrosa bat Emilyrentzat</i>	27
Raymond Carver. <i>Poemak</i>	42
Koldo Izagirre. <i>Lamiaren zain</i>	53

Kritikabideak

Aurelia Arkotxa. <i>Arestiren hiri mitikoak</i>	65
Amaia Iturbide. <i>Historia txiki bat</i>	79
Jon Kortazar. <i>1996ko kaiera</i>	83

Idazle omenduak: topa-hitzak

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, <i>Txillardegi</i> . Andolin Eguzkitza	101
DIONISIO AMUNDARAIN. Tere Irastortza	105
JOSE JOAKIN AZURZA. Arantza Iturbe	107
BITORIANO GANDIAGA. Juan Kruz Igerabide	109
JUAN GARMENDIA. Joxemari Iturralde	111
JOAN MARI LEKUONA. Joserra Garzia	112
JOSE MARI SATRUSTEGI. Aingeru Epaltza	114

Liburu-iruzkinak

ARRIETA, J. A. <i>Graffitien Ganbara</i> . Itxaro Borda	119
EPALTZA, AINGERU. <i>Tigre ebizan</i> . Josetxo Azkona	121
IZAGIRRE, KOLDO. <i>Gure zinemaren historia petrala</i> . Roberto Mielgo. ...	124
LINAZASORO, KARLOS. <i>Altzeta</i> . Jerardo Elortza	126
LINDO, ELVIRA. <i>Manolito Gafotas</i> . Enkarni Genua	129
SCIASCIA, LEONARDO. <i>El caso Moro</i> . Jon Alonso	131
ZUBIMENDI, JOSE RAMON. <i>Bidezkoak</i> . Amaia Iturbide	133

Aurkezpena

Idazkide eta irakurkide maiteok,

Hona hemen zure eskuotan *Hegats* gure aldizkariaren ale berria, egin dugun azkena delako, jakina, baina era berean beste hainbat moldez ere berri izan gura duelako. Berri lehenengo eta behin aldizkakotasunean, urteko lau zenbaki ateratzea eta kalera urtean birritan behintzat irtetea delako gure helburua. Berri bigarreneneko egiturari, honako ale honi eman diogun egiturari eusten saiatuko garelako hurrengoetan. Eta berri azkenez gure esperantzetan, Euskal literaturmunduak behar duen literaturaldizkaria ateratzekotan, behinola *Eusko Gogoak* eta *Eganek* bete zuten papera betetzen laguntzea espero dugulako.

Munduko literaturei eta literaturmunduei begiratu labur bat emanez gero –guti goiti beheiti geure esku daudenei behintzat– behingoan konturatzen da norbera literaturaldizkariak betetzen duten errolarekin. Alde batetik, den delako hizkuntzan idazten denaren berri ematea eta sortzen den guztiorri kritika zorrotza egitea; eta bestetik munduan dabilzan mugimendu, joera eta idazkeren albiste ekartzea, herriko eta kanpoko jendearentzako probaleku gozoa izateaz gain. Bada, hori guztiori da gu geu hemen egiten saiatu garena eta egiten saiatuko garena, hots, literatura zentzurik hertsienean, irakurleen gozagarri gerta daitezkeen testuak biltzea, eta bidenabar geure literaturmunduari autonomia ematea. Oraindik orain euskaldun guztiok ez baditugu «*legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere, zeren erresumak baititugu diferent*», ez dadin ostera ere gerta Axularrek berak esan behar izan zuen harako hura:

*«Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela jendar-
tean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen
artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.*

*Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita lati-
nez, frantzesez, edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats
eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskal-
dunek berek dute falta eta ez euskarak».*

Izanen al gara gauza proposaturiko guztia betetzeko!
Idazkuntzakontseiluaren izenean

Andolin Eguzkitza

Josune Olabarriak, Euskaltzaindiko bibliotekariak, Odon Aprai-zen paperetan aurkitutako Jon Miranderen poema. Apraizek berak eskuz idatzi bezala: "belarri artuta 1956 (entzunez) gutxi gora bera".

Andre galanta Dubarry
Erregea jauzten sarri
Han edirengo atsegiña ta
Aluko zori ugari

"Gernikako arbola
da bedeinkatua
euskaldunen artian
guztiz maitatuba..."

Presidentia han urkatua
izanen da kontentua!

Gernika'n eder arbola
Eskualdunaren simbola
Hobe dudala nere herriko
puta ~~berri~~ gaztien txabola

Literaturbideak



Raymond Carver

William Faulkner

Bitoriano Gandiaga

Koldo Izagirre

Juan Ramon Madariaga

Ariketa

Niri eragiten dit eguraldiak eta eragiten didate urtearoeak eta eragiten dit egunsentiak eta iluntzeak ere eragiten dit. Ez dago nire agenda ikustea besterik; izadiaren txistada askotarikoen eran-tzunak jasotzen ditu. Aurten hainbeste harritu gaituen hain goiz-tikako udalehen giroaz hau dio agendak:

Aurtengo udaberria
goitzxo mugitu da aurten.
Aurtengo udaberria
aurreratuxea dator,
bere sasoia baino lehen.

Eta berehala beste hau:

Otsailaren azkena da,
baina iluntze epela.
Txoriek ozen diote
ihardun beharra dutela.

Goitzxo udaberrirako,
lizarrak loran halere,
bizitzak erabaki du
mugitzea berriz ere.

Zozok, birigarroek,
beste hainbat txorirekin,
airea dute pintatzen
beren kantu-zirristekin.

Gaualdeak udaberri
ukitu hezerik badu,
noizka datorren haizeak
erretura usaina du.

Izadiarekiko eta bertako fenomenoekiko sentiberatasun hau babestua ez ezik lagundua aurkitzen da gure frantziskotar bizieran. Orduen liturgiak Danielenaaiak errezarazten dizkigu maiz eta frantziskotar bizitzak «Anaia eguzkiaren eresia» sarri kantatzen garamatza. Danielen Kantikak zerutar izakiei, naturako fenomenoiei, lurreko gauzei eta gizaki guztiei deitzen die Jainkoa bedeinkatzera eta «Anaia eguzkiaren eresia» zeru-lurretako izakien-gatik, gaixoa eta estuasuna onez hartzen dutenengatik eta gure arreba heriotzagatik Jainkoa goratze bat da. Nik egunsentia, iluntzea, udaberria eta udazkena nahi ditut nire egungo otoitzerako lagun.

Egunsentia

Adinean aurreratu ahala gutxiago, baina oraindik egunsentia gorako bultzada ematen dit goizero. Egun berri bakoitzak eskutik heldu eta ohetik altxatzera poztuko banindu bezala gertatzen zait. Goiz jaikitzen naiz eta zerbait atsegina suertatu behar balitzait bezala aurkitzen naiz lehen orduetan.

Egunsentia nau pizten
kandela pizten den legez,
egunsentia konortez
pizten nau egun bakoitzez
mirari halako batez.

Zer gauza iratzartzea,
konortera etortzea,
banaizela ohartzeta,

berriz ere norberaren
akordura bihurtzea!

Egun berriz egun berri,
ezusteko erregali
bat bateko ta pozgarri,
iratzartze bakoitza zait
bakoitz eta txundigarri.

Bosteterdietan izarak utzi, txukun jarri eta ateri bada, kanpora, ibiltaldi bat egitera. Zortziehun metrotan, tarteka tarteka dago argiz ibilbidea, eta joan eta etorri aritzen naiz bertan, harik eta Gorespenak kantatzeko ordura arte, zazpiak arte. Bustia bada etxeko patioan ibiltzen naiz. Ordu horietan oskarbi denetan, zeru izarratua egon ohi da eta sarri ilargia ere bai bere laualdietatik batean. Aurten Hale-Bopp kometa ere bistan ukan dugu. Isiltasun handiko garaia da oraindik. Hontzek, urubiek-eta jotzen dituzten uju-uju eta garramiztoak nabarmentzen dira ilunpeko baretasunean, baita ahuntzen txintzarriak eta azerien zaunka hirukoitzak ere.

Goizak gorantz eragiten didanez, nahiz aire librean dela nahiz etxe barruan, gogoeta baikorrak erabiltzen ditut, gehienetan poza damaidaten esaldi motxak errepikatzen ditut, beraietan eta beraiekin gozatuz. Goizak itxaropenera irekitzen nau.

Argia ozta den zerbait
sortalde ostean hara,
ezarian, ziri-zara
garatzen eta goratzen,
zirkin gozo ta dardara.

Egun berri, jaio berri
gorari, zabalkorra da;

gero ta argiagoa da;
hazi ta hedatu ahala
egun osatu da jada.

Badugu egun berria,
argia eta hozkara;
martxan jartzeko deia da,
mugi eta noan bada
eguneroko lehiara.

Iluntzea

Urriko hogcita hamarrak arratsaldeko bostak laurden
gutxi. Igandea, ta Arantzazu
kotxez lapaxturik. Motxiladun jende
asko ageri da, mendiko haizeak
masailak piztuta. Mendietatik ezik
Arantzazutik ere ihes egiteari
eman dio jendeak.
Eguzkiak ere laster utziko du
zeru oskarbia,
ta itzalirik utziko du
baso, larre ta zelaien
kolore bizi pila guztia.
Hego haize iharra, epel eta pozgarri
ibili da oraintxe arte ia.
Eguzkia jaitsi ahala hoztuz doa
eta indar zorrotza hartuz, ebakitzen duen hura.
Artia mendiaren honuzkaldea
azpilduraz, zoko-mokoz, ageri da dena,
gainen hori nabasia eta sakostetako
urdin, grisez geundua,
izurren arabera txandakatuz.

Jende asko izan da Arantzazun.
Seiak laurden gutxi da.
Usabakotxenan gorde da eguzkia.

Eguzkiaren sartalderatzea, zeru-lurren urrutieneko ertzeratzea, une hunkigarria izan da niretzat ume-umetatik. Nabarrizko osabaren etxean, arratsalde beranduko eguzkiaren desagertzea barruntatzen nuenean, hartzen nuen jarleku bat eta sukaldeko leiho ondora eramaten, eta haren gainean zutik negarrari ematen nion ilunabarrero. Iluntzeak neure barruan sartzeraz deitzen nau. Iluntzeak etxean sarrarazten gintuen inguraldean argi indarririk ez zuen Orbelaunen; ingurua, mendi eta troka, basoak barne, gauak estaltzen zuen ordurako eskaratzera bultzatzen gintuen ilunabarrak, amak sutondoan bizten zuen karburoaren klaru unera. Halaxe etortzen zait neure barruenera nire espiritua iluna begietara orduko, alferrik elektrizitate argi guztiak. Orbelaungo iluntze giro hau Elorri-ko 129. poematxoan isladatu nuen:

«Arima,
bakarrik,
soiñaren barnean.

Ilunabarra da.

Ta ez dago argirik
nire bihotzean».

Ez dugu erremediorik basartean jaio eta kaskondu ginenok; landare bagina, iluntzerako beren lorea biltzen duten haietakoak izango ginateteke.

Nekearen konnotazioa du arratsalde hitzak. Arratsalde entzun orduko maskaltzen zaizkit begiak eta kantsakizuna jabetzen zait gorputzaz eta lotarako deia susmatzen dut eta pitin bat tristeza da arratsaldea, gustagarria den zerbaiten akabera.

«Arratsaldea, kolore gorriz,
hiltera doa, kolore horiz,
hiltera doa, kolore hautsiz,
hiltera doa, zerutik jausiz,
jadanik zurbil, margul jadanik.
Arratsaldea hiltera doa,
ta, hilten dagoena,
neure egun bat da». ¹

Egunaren amaieran, eguzkia beheratzen dihoanean gertatzen da koloreen apoteosia zoragarria. Eguzki-sarrera beti da une ordigarria. Zeruak hodeiz eta ganduz prestatzen du iluntzeko ordua eta hodeietan eta ganduan biltzen eta isladatzen ditu eguzkiaren azken errainuen «diamantezko printzak», berei dagokien tindagai bero guztietan: odol eta su, lila eta limoi, anbar eta arrosa, laranja eta txingar eta beste mila tinturatan, inoiz errepikatu gabe deko-razio beti galanta. Baina han erretzen da lilura eta amets-giro guztia, harik eta dena ezabatu eta iluntzen den artean, gauari utziz guztiaren gaineko nagusitza.

Udaberria

Asfalto-zementuetako semeari sineskaitz gertatuko zaio, baina oraindik lur sanotik gertu bizitzeko grazia dugunok, udaberria hurreratu orduko, geure orpoetatik gora nabari ohi dugu haren zirrara.

Lur amaren azkarria,
heldu da udaberria,
bizidun izaki oro
barruenean mugituz,
heldu da suspergarria.

1. H. G. B. 137 or

Nork ez aditu beraren
berpizkunde aldarria?
Heldu da zainetan gora,
bero eta alai heldu da
odolari ezarria.

Landarerialan dena da
puja ta punta berria,
hegaztietan kantua,
abereetan irrintzia,
gizakietan irria.

Begien aurrean zaizkigu hazten zelai, soro eta larreetako belar-
rarak, begien aurrean arbolak orriz eta kima berriz janzten beren
abar puntetako bilkaritxoak geldi geldi askatu ahala; begien au-
rrean zaizkigu berriro arbolak lorez apaintzen abartxoetako pinpor-
tak zabaldu ahala; begien aurrean zaigu agertzen landaredi guztia
basoz eta oihanez, lautada, muino eta mendien gainez berdearen
xarma hedatuz. Bitartean mila tamaina ta koloretako hagaztien
asaldura datorkigu belarriz barrura egunsentian edo berdin ilun-
tze aurreko orduan, gure erraiak kitzikatzera.

Eta behokak larreetan
irrintzi eginahaletan.
Behor-behokak larreetan,
ipurtarin eta zoli,
garainoak tentaketan.
Behor-behokak larreetan
irrintzi eginahaletan,
udaberriko olgetan.

Zaldiek ere irrintzi,
goraintziari goraintzi,
zaldiek ere irrintzi.

Dardara dira bazterrak,
irrintzia da erauntsi.
Zaldiek ere irrintzi,
goraintziari goraintzi,
udaberriko irrauntsi.

Eta udaberria ez da geratzen, geldi gabe dihoa garatzen. Berehala batean ortuak babaz, ilarrez, marrubiz aberasten ditu, zelaiak eta larreak lorez, gereziondoak fruitu gorritz, madariondoak makatz beilegiz eta sagarrondoak ale gorriskaz. Udaberriak badu guri pozera eragiteko indarririk. Uda ez da udaberriaren garatze era betekoa baino. Egunarentzat eguerdia dena beste.

Udazkena

Pitin bat tristea da udazkena, udako egun argi akaberarik gabekoen amaiera baitakar eta hotza, eta bustia, eta lokatza, eta orbelak, eta arbola eta landare biluziak, eta belar zurbil eta zime-lak, eta ondoren negua. Eta ez da negua ere ederra ez delako, baina bat egun amaigabe eta argien zale izan, eta negua egun-labur, argi-arre eta gau-luze. Urteak udazkena du bere arratsalde eta iluntze ordu.

Azaroaren hemeretzi honetan,
eguzki narrasa,
bizi-bizi dago.
Gogotik erretzen du burua,
aukeran, ekainekoak baino
izpi beroagoz.
Argi dago arkazien azpia
eta garbi.
Haizeak jaso eta eraman izango ditu,
bakarrik ere utzi gabe,
jausi zaizkion orriak.

Dena dago, beraz, argi eta garbi
eguzki kiskalgarritan.
Badirudi eguraldi oskarbien bezperan gaudela,
albitzen lasto hori eta iharrengatik ez balitz,
bide ertzetako ira kiskurrengatik eta
nekosten itzal hain luzeagatik ez balitz.
Une batez gustora ahazten gara
zein garaitan bizi garen.
Une batez eldarnioari, lilurakeriari eman nahi
genioke lekua.
Neguan sartu nahi genuke udagiroya
eta buruan oraindik gazte garen uste gaixoa.
Gorputz jada baldartu honegatik
ez balitz,
eta batez ere, hainbeste egun, hainbeste
bizitza jan didaten
urteongatik!

Bere egunen laburragoan eta bere giro freskoagoan, arratsalde beranduaren eta ilunabarraren antzekoa da udagoena edo udazkena, *goen* eta *azken* lexemek duten pisua azpimarratuz. Iluntzea batez ere zeruan koloreztatzen den bezala, udazkena lurlean da kolorez janzten, mendiz mendi, muinoz muino, lautadaz lautada, ibarrez ibar. Basoak, larreak, soroak dira mila txatal, mila forma geometriko milakotan txandatzen, mila erliebe desberdinetan, mila kolore mota geldigabe aldakorretan. Lehen gehienbat berde zen lurraren azalera guztia margulduz dihoa eta kolore sekundarioen multzo kontaezinari leku emanez. Eta bitartean fruituak ez ezik orriak berak ere entregatuz doa izadia, bere oparotasuna erantziz eta eskainiz, eta duen guztia eman ahala, ondasunez hustuz. Askatuz doa, den dena utziz, biluzik geratu arte. Gero eta kolore margulagoz: horitik larura, gorritik okrera, gero eta kolore maraztuagoetara, hilagoetara.

Udagoena heldu da
ezkien orrietara.
Udagoena heldu da.
Berdea zen naturaren
gainjantzia maraztu da.

Zelaiak maskaldu dira;
eguzkia laburtu da;
masustak berindu dira.
Itzala freskatzen eta
luzeagotzen ari da.

Larre goietatik behera
ardiak, behiak, behorak,
babes bila, maldan behera.
Ezkurrak, orri margulak
arboletatik lurrera.

Lorerik, zenbait moretxo
han hemenka eta bakan.
Lorerik, zenbait moretxo.
Artalastoak garbalik,
ez da mardulik ezertxo.

Txaboletara jaitsi da
Gorbeiko haize zorrotza,
ez da deusekin gupida.
Behorak batean dira,
apalik dute mototsa.

Lurraren azalera guztiak erantzi du distiratsu zuena eta basamortuko aszeta bat bezala da, parajez paraje, zakukiz eta errautsez jantzi, eta barne bizitzari emana jarri da, neguko sakontasun barnekoira bidean.

GARAI BATEAN

Garai batean gizonak lurrean etzan ziren ahoz gora
zeruko seinaleak hobeto ikusi ahal izateko eta gero
hil eta hoztu ziren gaur arte, mendiak bezala,
otseskietan antzeman baitaitezke
sudurrak, begiak eta batzutan bihotzetan iltzaturiko
puinalak.

AURREKO MUNDUA

Ordoki horizatuetatik paseatzen ginen eta
mendi okreetan landare berde eta halabehar zaharrek
begiratzen ziguten.
Aurrean mundua amaiezina zen eta gibelego
atmosfera, agian lainoztuta, ibiliriko lurraren
dimentsio okerrak gorpuzten zituen.
Beharbada ez ginen mugitu behar, baina
gelditzeak beldurra ematen zigun.
Gelditzea eta erroak, eraikitzea, egotea,
arnasa berriak, sortzea eta batez ere
begiradak galtzea.
Joan ginen. Aurrean munduak, oraindik, amaiezina zirudien.

POSTARIAREKIN EGIN DUT TOPO

Postariarekin egin dut topo etxatean eta
gutunazal arraro bat luzatu dit
goiz goibel honetan.
Paper leuna urratzen ari naizela
pausatu da arbolaren adarretan
zozo beltza.
Jotzen ditu desohiko notak
isiltasun honen erdian.
Paper leunak diost hilik zaudela
urrun, hil zarela, eta abar, eta abar.
Zozoaren musika entzuten dut
zer egin behar dudan erabakitzen
saiatzen naizen artean.
Bere musika aditzen dut nire lokien arteko
infernuan.

ARRAINA

Egoera hau bizi izan dut inoiz.
Ur azalera urten eta arnasa
barneratutakoan,
sakonera argitsu baterantz murgildu.
Arrainok ortzea ikusteko
hala egiten dugu lantzean behin.

GOIZALDERO

Goizaldero artalde bila zoazelarik
zaitut ikusten.
Eta ni malda ikezu honetatik ihes egin ezinagatik
bozten naiz zure kantu xumea aditzean.
Eta ni harpe honen barruko zulo eta
leize ezkoetatik galtzen naizelarik,
zure doinu ezta aditzean
zaitut desiratzen.
Eta nere ezkardek eta adarrek dardara egiten dutenean
hasten naiz osoki penatzen
eta orduan pentsatzen
zenbat gutiziatuko nuen herensugea ez izatea.

BI OLATU

Bi olaturen arteko
denboraz kontzentratzen naiz,
eta lehertu aurretik neureganatzen
saiatzen.
Batzutan olatu batetik bestera
espazio luzea izaten da, baina
halarik ere ezinezkoa da.
Gaur itsasoa ezpata bat da eta niri
begiak urratu dizkit.

URTEBETETZEAN

Guztiok alde egindakoan gelditu ginen bakarrik.
Oparia orduan eman nizun.
Ez zenuela ezer espero esan zenidan buztin koloreko
papera apurtzen zenuen bitartean.
Erloju bat zen. Metalezkoa, zenbakiak gaizki margotuak.
Zuk telebistaren gainean jarri eta oso polita, oso, oso
zela esan zenuen.
Musu batzuk eman zenizkidan eta nola otu, non erosi,
ea gogoratzen nintzen, eta halakoez mintzo ginen.
Bat-batean begiratu zenuen.
Beitu, bada ordu laurden bat erlojua oparitu didazula.

WILLIAM FAULKNER

Arrosa bat Emilyrentzat

Imanol Zubiriak itzulia

Estatu Batuetako Mississippi Estatuko New Albany izeneko hirira jaio zen William Falkner 1897.eko irailaren 25ean (hala ere, bere lanak beti **Faulkner** izenarekin sinatuko zituen). Ia eskola gabea, bolondres sartu zen Lehendabiziko Mundugerran, baina gerra bukatu zen arte parte hartu gabe. New Yorken urte batzuk bizi eta Europan zehar bidaiatu ondoren, bere jaiotzako Estatuko Oxford hirira erretiratu zen literatur-lanetan huts-hutsean aritze-ko. 1949.ean Nobel saria eman zioten, eta, horri esker, bai Estatu Batuetan eta bai munduan ezagunago bilakatu zen. Bere bizitzaren azken urteetan zerbait bidaiatu zuen, hitzaldiak emanez; eta bizitzeko eta idazteko aukeraturiko hirian, Oxforden, 1962.eko uztailaren 6an hil zen.

Era askotako literaturtankera landu zuen Faulknerrek (poesia, teatroa, zinemagidoiak...), baina dudarik gabe bere eginkizun apartekoena eleberria izan zen. Bere eleberriak idazterakoan Europan zehar zebiltzan tankera berriak Melvilleren ildotik zihoan eleberririk amerikar klasikoan sartu zituen. Horrela, Joyceren bide-*tik* idatzi zuen *The sound and the fury*. Baina bere produkzio nagusia Yoknapatawpha-ko saga osatzen duten liburuak dira: *Sartoris; Absalon, Absalon; The Unvanquished; Go Down, Moses; Intruders in the Night...* Bertan, Estatu Batuetako Hegoaldean kokaturiko alegiazko herri bateko istorioan zehar, pertsonaiak, tokiak, bizimoduak... agertzen dira. Lurrarekin hain itsatsia egon

arren, azaltzen diren arazoak ia unibertsalak dira, inorentzat arrotz gertatzen ez direnak.

Itzultzeko aukeraturiko ipuin hau ez dateke, beharbada, eza-gunena edo hoberena, baina hedapen-herstasunek mugaturik, idazle honen ordezkari ona dela deritzogu. Irakurtzerakoan kontuan hartu, halaber, Faulkner ez dela idazle erraza. Irakurlearengandik lankidetzaz eskatzen du bere obra guztian. Zailtasun horretaz, Faulknerrek berak ere zera esan omen zuen: «*Bi edo hiru aldiz irakurri ondoren ez bada ulertzen, lau aldiz irakur*».

Imanol Zubiria

OHARRA:

Ipuin hau Forum aldizkarian argitara zen lehen aldiz 1930ean. Frantzesera Maurice-Edgar Coindreauk itzuli zuen 1932an, eta 1970erako 25 birargitarapenak eginak ziren.

Arrosa bat Emilyrentzat

Miss Emily Grierson hil zenean, gure hiri osoa joan zen haren hiletara: gizonak monumentu erori batentzako errespetuzko afekzio bat dela bide: emakumeak, gehienez, haren etxebarrua ikusteko kuriositateagatik, zein, otsein zahar batek salbu –lorazain eta sukaldari konbinatua–, gutxienez azken hamar urteetan inork ez baitzuen ikusi.

Egitura sendoko etxe bat zen, tenore batean zuria izandakoa, kupulez, orratzez eta balkoi bilgutuez hornitua, hirurogeita hamarretako estilo astunki airosoan, eta inoiz gure kale selektuena izandakoan eraikia. Baina garajeek eta kotoia hazietatik bereizteko makinek auzune hartako izen gorenak ere inbaditu eta suntsitu zituzten; Miss Emilyren etxea geratu zen bakarrik, beraren gainbehera pollit eta setatsua altxatuz kotoi-bagoi eta gasolina-ponpen gainetik –gauza itsusien arteko gauza itsusi bat–. Eta orain Miss Emily joanda zegoen izen gorenetako ordezkariak elkartzera, haiek dautzan hilerri zedro-nahasira, Jefferson-eko batailan eroritako Batasuneko eta Konfederakuntzako soldaduen hilobi izengabeko eta zerrendatuen artean.

Bizirik, Miss Emily tradizio bat, obligazio eta ardura izan zen; hiriarengan egin behar heredagarri antzeko zerbait, 1894.eko egun hartatik datatua, zeinetan Sartoris koronelak, alkateak –amantal gabe emakume beltzik kaleetan ager ezin zitekeela zioen ediktua eman zuen berberak– zergak barkatu baitzizkion, dispensa aitarren heriotzatik betirako izango zelarik. Eta hori Miss Emilyk ez zukeelako karitaterik onartuko. Sartoris koronelak ipuin bihurri bat asmatu zuen, Miss Emilyren aitak hiriari dirua utzi ziola, eta hiriak, negozio bezala, berrordaintzeko bide hau nahiago zuela. Sartoris koronelaren belaunaldiko eta pentsamenduko gizon batek bakarrik asma zezakeen hura, eta bakarrik emakume batek sinets zezakeen.

Hurrengo belaunaldia, ideia modernoagoekin, alkate eta zinegotzi bihurtu zenean, akordio horrek deserosotasun txiki zenbait sortu zuen. Urtearen lehendabiziko egunean zergen berria bidali zioten postaz. Otsaila heldu zen, eta ez zegoen erantzunik. Eskutitza formal bat bidali zioten, berari eroso zitzaionean sheriffaren bulegotik joatea eskatuz. Aste bat beranduago alkateak berak idatzi zion bisita bat edo bere autoa eskainiz, eta erantzunez zera jaso zuen, itxura arkaikoko paper batean ohar bat, tinda kolortu eta kaligrafia jarrai eta mehe batean, ez zela gehiago etxetik ateratzen gatzigatuz. Zergen berria ere estalki barruan zetorren, iruzkinik gabe.

Zinegotzien Batzordearen biltzar berezi batera deitu zuten. Ordezkaritza bat joan zen andrea kunplimentatzera, eta atea jo zuten, zortzi edo hamar urte lehenago portzelana-pinturazko eskolak emateari utzi zionetik beste bisitarik zeharkatu ez zuen atea. Beltz zaharrak sartu zituen gela ilun batera, zeinetatik eskailera bat itzal handiagotara igotzen baitzen. Hautsa eta erabilmendurik eza usaintzen ziren, usain hertsia eta hezeak. Beltzak mintzagelara zuzendu zituen. Larruz gaineztaturiko altzari astunez jantzirik zegoen. Beltzak leiho bateko pertsianak ireki zituenean, larrua arrakalatuta zegoela ikus zezaketen; eta eseri zirenean, hauts ahul bat nagikiro azaldu zen beren izterren inguruan, fits geldoekin eguzki-izpi bakarrean biraka. Tximinia aurrean, pintatze-asto urrez-tatu eta deserlantzatu batean Miss Emilyren aitaren lapitz-erreturatu bat zegoen.

Altxatu egin ziren hura sartu zenean –emakume txiki, lodi bat, beltzez jantzia, gerrikoan desagertzen zen urrezko katea mehe bat gerriraino jaisten zitzaiola; urre deserlantzatzuko buruko bolizko konka batean makurturik–. Haren eskeletoa txikia eta zimela zen; beharbada horregatik beste edozeinengan txapartasuna izan zitekeena berarengan loditasuna zen. Puztua ematen zuen, ur geldietan denbora luzetan murgilduriko gorpu bat bezala, eta era berean

marguldua. Begiek, aurpegiaren tximur koipetsuaren artean galduak, ikatz zati txiki pare bat ematen zuten, ore-konkor baten sakatuak, aurpegi batetik bestera higitzen zirenean, bisitariak mandatua ematen zuten artean.

Andreak esertzerik ez zien eskatu. Atean zutik geratu zen, eta poliki entzun zuen mintzalaria geldione batean trebukatu zen arte. Orduan, urrezko katearen muturreko erloju ikustezinaren tiki-taka entzun zezaketen.

Andrearen ahotsa lehor eta hotza zen. «*Jeffersonen ez dut zergak pagatzerik. Sartoris koronelak azaldu zidan. Beharbada, zuetariko bat hiriaren artxiboetara irits daiteke eta horrekin aseko zinatekete*».

«Baina egin dugu. Gu gara hiriko agintariak, Miss Emily. Ez zenuen sheriffarengandik berri bat jaso, hark sinatua?»

«Paper bat jaso nuen, bai», esan zuen Miss Emilyk, «beharbada berak bere burua sheriffizat hartzen du... Nik ez dut zergarik Jeffersonen.»

«Baina, begira, liburuetan ez dago ezer hori erakusteko. Joan behar...»

«Sartoris koronela ikus. Nik ez dut zergarik Jeffersonen.»

«Baina, Miss Emily...»

«*Sartoris koronela ikus*» (ia hamar urte ziren Sartoris koronela hilda zetzala). «*Nik ez dut zergarik Jeffersonen. Tobe!*» Beltza agertu zen. «*Irtenbidea erakuts jaun hauei.*»

II

Beraz, zeharo gainditu zituen, hala nola hogeita hamar urte lehenago usainari buruz haien aitak gainditu zituen bezala. Aitaren heriotza eta bi urte geroago gertatu zuen hura, eta senargaiak –hark esposatuko zuela uste genuen guk– abandonatu zuenetik denbora labur bat beranduago. Aitaren heriotzaren ondoren, an-

drea oso gutxi ateratzen zen; senargaiak alde egin zuenetik, jendeak zailki ikusten zuen. Andreen arteko gutxi batzuk bisitatzen joateko ausardia zuten, baina ez ziren errezibituak izaten, eta lekuaren inguruan zegoen biziseinale bakarra gizon beltza zen –gazte orduan–, merkatuko otzara batekin sartzen eta ateratzen.

«*Gizon batek –edozein– sukaldea ongi goberna ahal balu bezala*», esaten zuten andreek; beraz, ez ziren harritu usaina garatu zenean. Mundu handi eta ugariaren, eta Grierson-tar garai eta ahalguztidunen arteko beste lotura bat zen.

Auzoko bat, emakume bat, alkateari, laurogei urteko Stevens epaikariari kexatu zitzaion.

«*Baina zer nahi duzu nik egitea horretaz, emakume?*», esan zuen hark.

«*Hara, usaina geratzeko gaztigua bidali*», erantzun zion emakumeak. «*Ez dago lege bat?*»

«*Seguru nago ez dela beharrezko izango*», esan zuen Stevens epaikariak. «*Seguraski suge edo arratoi bat izango da, andrearen beltz horrek bailan akabatua. Berari mintzatuko natzai horretaz.*»

Biharamunean beste bi kexa gehiago jaso zituen. Bata, gizon batengandik, erosta desberdinarekin. «*Zerbait egin behar dugu, epaikari jauna. Ni munduan azkena izango nintzateke Miss Emily nekarazten, baina zerbait egin behar dugu.*» Gau hartan Zinegotzien Batzordea bildu zen –hiru bizar urdinduak eta gizon gaztego bat, igotzen ari zen belaunaldiko kidea–.

«*Nahiko erraza da*», esan zuen azken horrek. «*Bidali gaztigu bat tokia garbiarazteko. Denbora bat eman, eta ez badu egiten...*»

«*Kaka zaharra!*», esan zuen Stevens epaikariak. «*Andre bati aurpegira botako al diozu usain txarra duela?*»

Beraz, hurrengo gauean, gauerdi ondoren, lau gizonek isilean gurutzatu zuten Miss Emilyren soropila, eta lapurrak bezala hur-

bildu ziren etxera, adreiluariaren oinarria eta sotoaren irekidurak usnatuz, haietariko batek eskuarekin, sorbaldatik esekitako zaku batetik ereintzaren higidura erregularra egiten zuen artean. So-toaren atea apurtu eta ireki zuten eta karea barreiatu, han eta inguruko estalgune guztietan. Soropila berriz gurutzatzen ari zirenean, ilunean zegoen leiho bat argitu zen eta Miss Emily agertu zen, argia bere atzean, eta bere tortso zuzena higidura gabe, idolo bat bezala. Poliki-poliki narras egin zuten soropilean zehar, kalea lerrokatzen zuten akazien itzaletaraino iritsiz. Aste bat edo bi geroago kiratsa desagertu zen.

Jendea beragatik urrikaltzen hasi zenean gertatu zen hura. Gure hiriko jendeak, gogoratuz nola Wyatt andere zaharra, beraren amona-izeba, azkenean guztiz erotuta hil zen, sinesten zuten ezen, berez egiatan zirenerako, Griersonarrek beraien buruak pixkat altuago mantentzen zituztela. Gizon gazteetako bat ere ez zen nahikoa ona Miss Emilyrentzat. Denbora luzetan irudi bizi bat bezala ikusten genituen, Miss Emily, zuriz jantzitako irudi lirain bat, atzeko partean, aita, zilueta zabala aurreko partean, bizkarra alabari eta zaldi-zigor bat oratuta, biak aurreko atearen markoaren barruan. Horrela, hogeita hamarretara heldu zenean, eta oraindik ezkongabe, gu zehazki ez geunden poztuta, mende-katuak baizik; familiako zorotasunarekin ere, ez zituzkeen bere senargai-abaguneak errefusatuko, inoiz errealki egiaztatuak izan baziren.

Bere aita hil zenean, zera gertatu zen: etxea izan zela hark utzitako ondasun bakarra; eta alde batetik, jendea pozik zegoen. Azkenean Miss Emilyz urrikal zitezkeen. Bakarrik utzita, eta txi-ro, gizatiarrago bilakatuko zen. Orduan berak ere txakur txiki bat gehiago edo gutxiagoren emozio eta etsipen zaharrak ezagutuko zituzkeen.

Aitaren heriotzaren biharamunean, andre guztiak bere etxera joateko prestatu ziren, eta doluminak eta laguntza eskaintzera,

gure artean ohitura den bezala. Miss Emilyk atean topatu zituen, beti bezala jantzita eta aurpegian inolako arrenkuraren aztarnarik gabe. Bere aita ez zegoela hilik esan zien. Hura hiru egunetan zehar egin zuen, ministroak bere etxera joaten, eta doktoreek gorpuaz nagusitzeko konbentzitzera saiatzen. Legera eta indarrera jotzeko ia prest egon zirenean, andreak amore eman zuen eta aita bizkor ehortzi zuten.

Ez genuen esan orduan erotuta zegoenik. Egin zuena egin behar zuela sinesten genuen. Gogoratzen genituen aitak uxatu-tako gazte guztiak, eta bagenekien, ezer gabe utzita, dena lapurtu zionari itsatsi beharko zitzaiola, jendeak egiten duen bezala.

III

Denbora luzetan gaixo egon zen. Berriz ikusi genuenean, ilea motz ebakia zuen, neska baten itxura emanik, elizetako leiho koloreztatueta dauden aingeru horien antz urrun batekin —tragikoa, bere narearen motakoa—.

Hiriak eman berri zeuzkan espaloiak zolatzeko kontratuak, eta aitaren heriotzaren ondorengo udan lanean hasi ziren. Eraikuntzako konpainia beltzekin, mandoekin eta makineriarekin etorri zen, eta Homer Barron izeneko arduradun batekin, yankee bat —gizon handi, beltzaran, prest bat, ahots sakon batekin eta aurpegia baino begi arinagoekin—. Mutil gazteek taldeka jarraituko zioten, beltzen kontra madarikatzen entzuteko, eta beltzak, piko-txak altxatzerakoan eta jaisterakoan, kantatzen aditzeko. Nahiko arin ezagutu zituen denak hirian. Hiriplazako inguruan edozein tokitan barre pila bat entzuten zenuen guztietan, Homer Barron taldearen erdian egongo zen. Aurrerago, hura eta Miss Emily hasi ginen ikusten arratsaldetan, gurpil horidun kalesan eta ikuiluko zaldi gorri bikote berdinxkarekin.

Hasieran Miss Emilyk interes bat edukitzearekin poztu ginen,

zeren andre guztiek esaten zuten: «*Noski, Grierson batek Ipartar batez ez luke serioski pentsatuko, eguneroko langile bat*». Baina bazeuden beste batzuk, jende zaharragoa, zera esaten zutenak: doluak ere ez lukeela bultzatuko egiazko andre bat *noblesse oblige*-a ahanztera –hura *noblesse oblige* deitu gabe–. Zera esaten zuten bakarrik, «*Emily koitadua. Leinukoak etorri beharko litzaizkioke*». Ahaide batzuk zituen Alabaman, baina urteak ziren aitak beraiekin liskar egin zuela, emakume zoroaren, Wyatt andre zaharraren, ondasunaren gainean, eta ez zegoen bi familien arteko komunikaziorik. Are gehiago, hiletan ez ziren ordezkatuak ere izan.

Jende zaharrak «*Emily koitadua*» esan bezain laster, berriketak hasi ziren. «*Egiatan horrela dela suposatzen duzu?*», esaten zioten elkarrri. «*Noski baietz. Zer beste izan...*» Hau bere eskuen atzean, leihosareen atzean zeta eta satinezko hotsa gortinak hersterakoan igande arratsaldeko eguzkitik, zaldi bikote berdinxkaren klop-klop-klop fin eta bizkorrarekin: «*Emily koitadua*».

Andreak burua nahiko garai zeraman –nahiz eta guk apaldua zela sinesten genuen–. Ematen zuen inoiz baino gehiago azken Griersontar bezala bere duintasunaren berrezagutza eskatzen zuela; bere inpermeabilitatea berbaieztatzeko arrunkeria-ikutu hura nahi zuela. Hala nola arratoi-pozoia, artsenikoa, erosi zuenean bezala. Hura «*Emily koitadua*» esaten hasi zirenetik urtebetera gertatu zen, bere bi lehengusinak bisitan zeuden artean.

«*Pozoi apur bat nahi dut*», esan zion drogariari. Hogeita hamar urtetik gora zen orduan, oraindik fina, nahiz eta arrunki baino argalago, begi harro beltzekin aurpegian, zeinaren haragia lokietan zehar eta betzulo inguruetan tentsioan baitzegoen, faro-zaintzale baten aurpegiak eduki behar duen itxura irudikatzen duzun bezala. «*Pozoi apur bat nahi dut*», esan zuen.

«Bai, Miss Emily. Zein motakoa? Arratoi eta antzekotarako? Gomenda...»

«Daukazun hoberena nahi dut. Motak ez nau ardurutzen.»

Drogariak zenbait aipatu zituen. «*Hauek elefante bat ere garbituko lukete. Baina zuk nahi duzuna...*»

«*Artsenikoa*», esan zuen Miss Emilyk. «*Hori nahiko ona da?*»

«*Artsenikoa... da? Bai, andrea. Baina zuk nahi duzuna...*»

«*Artsenikoa nahi dut.*»

Drogariak andreari so egin zion. Andreak hura begiratu zuen, zuzen, aurpegia bandera tiratu bat bezala. «*Bai, noski*», esan zuen drogariak. «*Hori bada zuk nahi duzuna. Baina legeak zertarako erabiltzera zoazen esatea eskatzen dizu.*»

Miss Emilyk hura begiratu zuen, bere burua atzerantz okertua, drogaria begiz begi ikusteko, honek begirada erretiratu zuen arte, eta, alde eginik, artsenikoa hartu eta paketatu egin zuen. Banaketen mutiko beltzak eraman zion paketea; drogaria ez zen berriro itzuli. Etxean paketea ireki zuenean, kaxan zera idatzita zegoen, burezur eta hezurren azpian: «*Arratoientzat*».

IV

Beraz, biharamunean guk denok zera esaten genuen: «*Bere burua hilko du*». Eta guk hori gauzarik hoberena izan zitekeela esaten genuen. Bera Homer Barron-ekin ikusia izaten hasi zenean, guk zera esaten genuen: «*Berarekin ezkonduko da*». Gero, hau esan genuen: «*Bere eginen du oraindik*», zeren Homer berak ohartarazi zuenez –berak gizonak atsegin zituen, eta jakina zen Elks' klubean gizon gazteagoekin edaten zuela–, bera ez zen gizon ezkongai bat. Geroago, guk zera esaten genuen: «*Emily koitadua*», leihosareen osteetan, igande arratsaldeetan kalesa distiratsuan pasatzen ziren artean, Miss Emily bere buru altuarekin eta Homer Barron, kapela alboratua eta hortzetan zigarro bat, bridak eta zaldi-zigorra eskularru hori batean.

Orduan andreetako batzuk hura hiriarentzat zorigaizto bat zela eta gazteentzako ere eredu txarra zela hasi ziren esaten. Gizonak ez zuten nahastu nahi, baina azkenean, andreek ministro baptista hura –Miss Emilyren jendea episkopala baitzen– bisitatzera bortxatu zuten. Ez zuen sekula zabalduko elkarrizketan zer gertatu zen, baina uko egin zion berriz joateari. Hurrengo igandean kaleetan zehar ikusi izan ziren berriz, eta biharamunean ministroaren emazteak Alabamako Miss Emilyren ahaideei idatzi zien.

Beraz, berriro ziren leinukoak beren teilatupean, eta gertakizunak behatzera eseri ginen. Hasieran ez zen ezer gertatzen. Gero, denok seguru ginen ezkontzeko zirela. Miss Emily bitxigilearengana joan zela jakin genuen eta zilarrezko bizarra mozteko tresnamultzo bat agindu zuela, H.B. letrekin pieza bakoitzean. Bi egun beranduago, gizonezko jantzien ekipo oso bat erosi zuela jakin genuen, gau-ator bat barne, eta «*ezkonduta daude*» esan genuen. Egiatan pozik geunden. Pozik geunden zeren bi lehengusinak Miss Emily inoiz izan zen baino Griersontarrago baitziren.

Beraz, ez ginen harritu Homer Barron –denbora bat igarora zen jada kaleak bukatuta zeudela– joan zenean. Zerbait kontrariaturik geunden, ez zelako uzte publiko bat, baina guk uste genuen Miss Emilyren etorrera prestatzera joana zela edo bere lehengusienengandik askatzeko abagune bat emateko (denbora hartarako kabala bat formaturik zegoen eta denok Miss Emilyren aliatuak ginen lehengusinak baztertzen laguntzeko). Segurki, astebete beranduago haiek alde egin zuten. Eta guk itxaroten genuen bezala, hiru egun barru Homer Barron berriro agertu zen hirian. Auzoko batek ikusi zuen nola Beltzak sartzen uzten zuen ezkaratzeko atetik arratsalde bateko iluntzean.

Eta hura izan zen Homer Barron azkenengoz ikusi genuen aldia. Eta denbora batean Miss Emily ere. Beltza joaten eta etor-

tzen zen merkaturako otzararekin, baina aurreko atek hertsirik segitu zuen. Noizbait ikus genezakeen une batez leiho batean, hala nola karea barreiatu zuten gau hartan gizonek ikusi zutenean bezala, baina ia sei hilabetetan ez zen kalean agertu. Gero jakin genuen hura itxaroteko modukoa zela; hala nola bere aitaren koalitatea, beraren emakume-bizitza horrenbeste aldiz frustratu zuena, hiltzeko lar eraginkor eta lar koleratsu balitz bezala.

Miss Emily hurren ikusi genuenean, lodituta zegoen, eta ilea urdintzen hasia zuen. Ondorengo urte gutxietan urdinago eta urdinago bilakatu zitzaion, piperhauts-gatz antzeko burdin gris izatera iritsi arte, eta orduan bilakaera geratu egin zen. Heriotzaren egunera arte burdina gris indartsu kolore hartako zen, gizon aktibo baten ilea bezalakoa.

Denbora hartatik aurrera aurreko atea hertsirik mantendu zen, sei edo zazpi urtetako tarte bat salbu, berrogei inguruko izango zenean, portzelana-pinturazko eskolak ematen zituen artean. Beheko solairuko gela batean estudio bat prestatu zuen, nora Sartoris koronelaren denborakideen alabak eta ilobak bidaliak baitziren, eskaintzetarako hogeita bost zentabotako moneta batekin igandetan elizatarak bidaliak ziren izpiritu berdinarekin. Bitartean, beraren zergak barkatuak izan ziren.

Orduan belaunaldi berria hiriko bizkarrezur eta izpiritu bilakatu zen, eta pintura-ikasleak hazi egin ziren eta alde egin zuten eta ez zizkioten beren haurrak bidali euren kolorezko kaxekin, pintzel aspergarriekin eta emakumeentzako aldizkarietatik ebakitako irudiekin. Aurreko atea azkenaren ondoren hertsu zen, eta betiko segitu zuen hertsirik. Hiriak doako posta-banaketa lortu zuenean, Miss Emily izan zen bere ateginean metalezko zenbakiak itsastea eta posta-kutxa bat jartzea errefusatu zuen bakarra. Ez ziekeen entzungo.

Beltza egunero, hilero, urtero grisago eta konkorrango ikusten

genuen merkatuko otzararekin sartzen eta ateratzen. Abenduero zerga-berri bat bidaltzen genion, zein postetxeak, aste bat beranduago, itzultzen baitzuen, erreklamatu gabe. Noizpehin ikusiko genukeen beheko solairuko leihoren batean –argi zegoen etxeko goiko solairua hertsu egin zuela–, nitxo bateko idolo baten tortso zizelatua bezala, gu begiratzen edo ez begiratzen, zer inoiz ez genukeen esango. Horrela pasatu zen belaunaldiz belaunaldi –estimatu, ihesezin, bustikaitz, trankil eta bihurria–.

Eta horrela hil zen. Gaixotu egin zen hautsez eta itzalez betetako etxean, bakarrik txotxaturiko beltz batekin bera zaintzeko. Guk ez genuen jakin gaixorik zegoenik ere; Beltzarengandik informazioa lortzen saiatzeari denbora luze utzi geniola. Inori ez zion hitz egiten, ez eta andreari ere, seguraski, zeren bere ahotsa latz eta uher bilakatua baitzen, desusarioz bezala.

Beheko solairuko gelaren batean hil zen, intxaurrezko ohe astun baten, gortinaduna, bere buru urdina burko batean sostengatua, adinaz eta eguzki-argiaren faltaz horitu eta lizundua.

V

Beltzak, andreen arteko lehenak atean agurtu eta sartzen utzi zituen, beraien ahots behera eta txistu-antzekoekin, eta beraien soaldi arin eta kuriosoekin, eta gero desagertu egin zen. Etxean zehar abiatu zen zuzenki, eta atzetik atera eta ez zen berriz ikusia izan.

Bi lehengusinak berehala agertu ziren. Hiletak bigarren egunerako atondu zituzten, hiria Miss Emily lore erosien multzo baten pean ikustera etorririk, aitaren lapitz-erretratuaren aurpegia sakonki-sakonki hausnartzen zerraldoaren gainean, eta andreak, txistu-antzean eta ikaragarriak; eta gizon oso zaharrak –batzuk konfederakuntzako uniforme eskuilatuekin– portxean eta soropilean Miss Emilyz mintzatzen hura beraien denborakide izan ba-

litz bezala, berarekin dantzatu zutela sinetsiz, eta gorteiatu zutela, eta, beharbada denbora eta beraren progresio matematikoa elkarrekin nahasiz, zaharrek egiten duten bezala, zeintzuentzat iragan guztia ez baita bide gutxikorra, zelai handi bat baizik, gaintetik inolako neguk ia inoiz ikutzen ez duena, eta noizpehin urtehamarkada hurrenaren botila-idunak han eta hemen zatikatua.

Jadanik bagenekien eskaileren goiko eskualdean gela bat zegoela, zein inork ez baitzuen ikusi berrogei urtetan, eta bortxatua izan behar zena. Atea ireki orduko Miss Emily oneski lurpean egon arte itxaron zuten.

Atea apurtzeko eta botatzeko gogorgoak gela hauts hedakor batez betetzen zuela ematen zuen. Hilobietako antzeko hil-oihal mehe eta min bat gela guztian zehar zetzala ematen zuen, eztei baterako bezala jantzia eta atondua: kolore zurigorri zurbildutako errezelako gortinen gainean, zurigorri itzalezko argien gainean, jantzi-mahaiaren gainean, kristalezko zerrenda delikatuaren eta gizonaren bizarra mozteko tresnen gainean, hauek zilar deserlantzatuarekin, hain deserlantzatuako zilarra ezen monograma ilundua baitzegoen. Hauen artean, idunekoa eta gorbata zeuden, kendu berri balira bezala, eta altxatuz, gainazalean ilgora zurbil bat uzten zuten hautsetan. Aulki batean jantzia zegoen, arretaz tolestua; bere azpian bi zapata mutuak eta erantzitako galtzerdiak.

Gizona bere obean zetzan

Denbora luze batean han egon ginen zutik, keinu sakon eta haragigabea begiratur. Gorpua tenore baten besarkada baten jarreran zetzala ematen zuen, baina orain maitasuna baino gehiago irauten duen eta are maitasunaren imintzioa gainditzen duen loaldi luzeak adarrak jarri zizkion. Gizonetik geratzen zena, gauatorraren zirtzilen azpian usteldua, zetzan ohetik bereizezin bilakatua zen; eta beraren gainean eta ondoko burkoan, hauts

eroapentsu eta abagunearen itxarole baten geruza uniforme bat zetzan.

Orduan bigarren burkoan buru baten seinale bat nabari genuen. Gutariko batek bertatik zerbait altxatu zuen, eta aurrerantz makurtuz, sudurziloetan hauts mehe eta ikustezin hura, lehor eta garratz, ile burdin grisezko galpar luze bat ikusi genuen.

Euskaraz:

Hotsa eta ardaila. Euba, Bizkaia, Ibaizabal, 1992.

Itzultzailea: Maria Garikano.

Santutegia. Donostia, Elkar, 1990.

Itzultzailea: Xabier Olarra.

Poemak

Itzulpena eta oharrak: Kirmen Uribe

Ray Carver bere narrazioek egin zuten famako, eta halaber, Robert Altman-en *Short cuts* filmeak edota *Dirty Realism* etiketa hutsalak. Hala ere, bere azken urteak poemak idazten pasa zituen, horien bitartez azaltzen baitzuen hobekien orduan sentitzen zue-na.

Pasarte ugari ditu Carverrek aipagarri. Ez zuen inoiz amore eman heriotzaren aitzinean, zeina, Cocteau-ren merkatariaren morroiari bezala, bi aldiz agertu baitzitzaion. Alkohola zela eta, hiltorian egon zenean gaztigatu eta gero hamar urterako egin zuten ituna; hamar urte idazteko eta aurreko akatsak zuzentzen ahalegintzeko gutxienez, hamar urte bere burua eta hurbilekoak maitatzeko.

Carverrek zamarrako patriketan galtzen zituen poemak, erosketa-zerrendetan idatzi, poesiari aurpegiko xamur bat emanetz, desakralizatuz. Milosz-en aburuei jarraituz, ez dago zertan poesia irakurtzen sufritu beharrik.

Ez zuen prosaren eta poesiaren arteko bereizketan sinesten, ez zitzaion axola poemak bereak edo beste idazle batenak zirenentz. *A New Path to the Waterfall* liburuan, esate baterako, Txekhov-en prosa zatiak sartu zituen.

Bere poemetan ez da irabazlerik ageri, eguneroko bizitza da bere iturria. Eguneroko pasadizuekin egiten ditu poemak: fami-

liek zapuztutako haurtzaroak, komunikaziorik eza, bereizketak, gezurrezko harremanak, ezereza, lana, laku berde eta mendi urdinak.

Honako hau da idatzi zuen azkenengo poema, minbiziak eraman baino egun batzuk lehenago:

Eta bizitza honetan nahi zenuena

lortu al zenuen azkenean?

Bai, lortu nuen.

Eta zer nahi zenuen?

Maitasuna. Lurrean maite nautela sentitzea.

Itzulitako poemak *Ultramarine* liburuan agertu ziren.

BALSA WOOD

*My dad is at the stove in front of a pan with brains
and eggs. But who has any appetite
this morning? I feel flimsy as
balsa wood. Something has just been said.
My mom said it. What was it? Something,
I'll bet, that bears on money. I'll do my part
if I don't eat. Dad turns his back on the stove.
"I'm in a hole. Don't dig me deeper."
Light leaks in from the window. Someone's crying.
The last thing I recall is the smell
of burned brains and eggs. The whole morning
is shoveled into the garbage and mixed
with other things. Sometime later
he and I drive to the dump, ten miles out.
We don't talk. We throw our bags and cartons
onto a dark mound. Rats screech.
They whistle as they crawl out of rotten sacks
dragging their bellies. We get back in the car
to watch the smoke and fire. The motor's running.
I smell the airplane glue on my fingers.
He looks at me as I bring my fingers to my nose.
Then looks away again, toward town.
He wants to say something but can't.
He's a million miles away. We're both far away
from there, and still someone's crying. Even then
I was beginning to understand how it's possible
to be in one place. And someplace else, too.*

BAL TSA-OHOLA

Aita suaren aurrean dago garunak eta arraultzak dituen zartagiari eragiten. Baina zein da gose goiz honetan? Noraezean sentitzen dut neure burua, baltsa-ohola baten modura. Zer edo zer esan dute. Amak esan du. Zer ote zen? Zerbait, ez dakit baina lepoa egingo nuke diruarekin zerikusia duela. lagundu egingo dut jaten ez badut. Aitak atzea eman dio suari. «Zulo beltzean nago. Ez nazazu gehiago hondora!» Leihotik argia sartzen da. Norbait negarrez. Gogoratzen dudana azkena garun eta arraultzen kirats hori da. Goiz osoa zakarrontzian beste gauza batzuekin nahasita. Geroxeago, aita eta biok automobileraz joan gara zaborte gira. Etxetik hamar milatara. Ez diogu elkarri hitzik zuzendu. Kutxak eta boltsak meta ilunera bota ditugu. Arratoiek garrasi, txistu egiten dute boltsa apurtuetatik tripak arrastaka ateratzen direnean. Automobilerara bueltatu gara, kea eta sua ikustera. Motorra abantean dago. Hatzetan dudana abioi-kola usaindu dut. Begiratu egin dit hatzak sudurrera eramaten ditudala. Gero urrunera egin du so, herri alderantz. Zerbait esan nahi du baina ezin. Milioika milatara dago. Biok gaude handik oso urrun eta norbait oraindik negarrez ari da. Orduan ere, ulertzen hasia nintzen nola ahal den egon toki batean. Eta beste nonbait, ere bai.

JEAN'S TV

*My life's on an even keel
these days. Though who's to say
it'll never waver again?
This morning I recalled
a girl friend I had just after
my marriage broke up.
A sweet girl named Jean.
In the beginning, she had no idea
how bad things were. It took
a while. But she loved me
a bunch anyway, she said.
And I know that's true.
She let me stay at her place
where I conducted
the shabby business of my life
over her phone. She bought
my booze, but told me
I wasn't a drunk
like those others said.
Signed checks for me
and left them on her pillow
when she went off to work.
Gave me a pendleton jacket
that Christmas, one I still wear.
For my part, I taught her to drink.
And how to fall asleep
with her clothes on.
How to wake up
weeping in the middle of the night.
When I left, she paid two months'*

JEANEN TELEBISTA

Nire bizitza azken bolada honetan
haize-alde doa. Baina, zeinek esan
berriro okertuko ez dela?
Gaur goizean, ezkontza hautsi berria nuela
izan nuen neskalgun bat
gogoratu dut.
Jean izeneko neskatila goxoa.
Hasieran, ez zen konturatzen
zein gaizki zeuden gauzak. Denboratxo bat
behar izan zuen. Baina, dena dela,
izugarri maite ninduela zioen.
Eta badakit zinez egia dela.
Bere etxean geratzen utzi zidan,
eta handik, bere telefonoa erabiliz,
nire bizitzako negozio mixerableak
zuzentzen nituen.
Edana ere erosten zidan,
eta esaten zidan ni ez nintzela
besteek esaten zuten hordi hori.
Txekeak sinatu eta
bere burko gainean uzten zizkidan
lanera joatean.
Pendleton jaka eder bat ere oparitu zidan
gabonetan, oraindik ere soinean daramadan hau.
Nik, nire aldetik, edaten irakatsi nion.
Eta nola lokartu
arropak erantzi gabe.
Nola negar batean
esnatu gauaren erdian.
Utzi nuenean, bi hilabeteko

*rent for me. And gave me
her black and white TV.
We talked on the phone once,
months later. She was drunk.
And, sure, I was drunk too.
The last thing she said to me was,
Will I ever see my TV again?
I looked around the room
as if the TV might suddenly
appear in its place
on the kitchen chair. Or else
come out of a cupboard
and declare itself. But that TV
had gone down the road
weeks before. The TV Jean gave me.
I didn't tell her that.
I lied, of course. Soon, I said,
very soon now.
And put down the phone
after, or before, she hung up.
But those sleep-sounding words
of mine making me feel
I'd come to the end of a story.
And now, this one last falsehood
behind me,*

I could rest.

alokairua ordaindu zidan.
Eta bere zuribeltzeko telebista eman.
Telefonoz hitz egin genuen behin,
hilabate batzuk geroxeago. Mozkortuta zegoen.
Eta, nola ez, neu ere aitzurtuta nengoen.
Esan zidan azkenengo gauza:
«Ikusiko al dut inoiz berriro nire telebista?».
Gelan zehar begiratu nuen,
Telebista bat-batean
bere ohiko lekuan agertu ahalko balitz bezala,
sukaldeko aulkiaren gainean.
Edo bestela, armairutik atera eta bere burua
aurkeztuko balu bezala. Baina, tamalez,
telebista hura kalean behera desagertua zen
aste batzuk lehenago. Jean-ek oparitutako telebista hura.
Ez nion gertaturikoa kontatu.
Gezurra esan nion, jakina: «Laster,
oso laster».
Eta telefonoa eskegi nuen berak eskegi
baino beranduago, edo lehenago.
Baina ametsetan esanikoak diruditen hitz horiei esker
istorio baten bukaerara heldu nintzela
sentitzen dut.
Eta orain, azken gezur hau
gainean,
atseden har nezake.

BONNARD'S NUDES

*His wife. Forty years he painted her.
Again and again. The nude is the last painting
the same young nude as the first. His wife.*

*As he remembered her young. As she was young.
His wife in her bath. At her dressing table
in front of the mirror. Undressed.*

*His wife with her hands under her breasts
looking out on the garden.
The sun bestowing warmth and color.*

*Every living thing in bloom there.
She young and tremulous and most desirable.
When she died, he painted a while longer.*

*A few landscapes. Then died.
And was put down next to her.
His young wife.*

BONNARDEN BILUZIAK

Emaztea. Berrogei urtetan zehar pintatu zuen.
Behin eta berriz. Azkenengo koadroko biluzia
lehenengokoa bezain gaztea. Emaztea.

Gazte gogoratzen zuen. Gaztea zelarik.
Emaztea bainuan. Apaintze-mahaian
ispiluaren aurrean. Biluzik.

Andrea eskuak bular azpian zituela
lorategi aldera so eginez.
Eguzkiak berotasuna eta kolorea barreiatzen.

Gauza biziak oro lorean dira han.
Andrea gazte, lotsati, desiragarri oso.
Hil zitzaionean alditxo batez pintatu zuen.

Paisaia batzuk eta. Gero, hil egin zen.
Eta andrearen ondoan jarri zuten.
Bere emazte gaztearen ondoan.

Carverren poema-liburuak:

Winter insomnia. Santa Cruz, California: Kayak Books. 1970.

At night the salmon move. Santa Barbara: Capra Press. 1976.

Fires: essays, poems, stories. Santa Barbara: Capra Press. 1983.

Where water comes together with other water. New York: Random House. 1985.

Ultramarine. New York: Random House. 1986.

A new path to the waterfall. New York: Atlantic Monthly Press. 1989.

No heroics, please. New York: Vintage. 1992.

Là où les eaux se mêlent. Paris: L'Incertain. 1993.

Les feux: essais, poèmes, nouvelles. Paris: Seuil. 1993.

Bajo una luz marina. Madrid: Visor. 1990.

Un sendero nuevo a la cascada. Madrid: Visor. 1993.

Euskaraz:

Katedrala. Donostia: Elkar. 1993.

Itzulpena: Juan Mari Mendizabal.

Armintzan uzteko mesedez. Eskertu nien eta Kaiarantz jaitsi nintzen. Aire hartu nahi nuen, kresalak ideiak garbitzen lagunduko zidan. Sobera edana nintzen. Txitxarroa besterik ez zakarten errezkadan lehorraritzen ziren gasolinoek. Asteburukoak irten gabe geldituak ziren, etxean jokatu zuen Athleticek. Hantxe zeuzkaten txalupak eta yateren bat edo beste: Lastana, Guztiz Eder, Caprichosa, Maitetxu... Itsasontziek mendi eta amabirjin izenak izan ohi dituzte beti, txalupek emazteki izenak. Armado-reak eta administrazio-kontseiluak baino hurbilago zaizkio arrantzale xumeak eta jabe txipiak itsasoari. Badakite ez dagoela ez zerukoen laguntzarik ez mendiaren gotortasunik itsasoa sukar emez harrotzen denean. Atsotu gabea da, sosegatu ezina. Kulunka eragiten dik ipurdika hasten denean, eta zazpi zakilak lanean jartzen dituanean uzkia joz morkola hautsiz barbarina bitsetan laberatuz hondoratu egiten duk irauli beharrez eta arpoia zeramak erdiz erdikoan eta soka eman behar duk, txikota luzatu eramanez ez hazaan, ez du mugarik nahi eta hondoratu eginen hau bestela, txikota moztu behar duk. Horixe duk askotan burura etortzen zaidan irudia, zakil moztu bat eskuan. Eskuak estutu egiten dik eta hortzore tubo zulatuari bezala kentzen zizkiok muki lirdinga piska eta odol tantak.

Kañista asko zegoen. Zizarea hartu eta delikatezia handiz enpalatzen zuten hamuan. Porratu egiten ote zaie enpalatuei urkatuei bezala? Gihar kontua da dena, eragiketa kimikoak, ehuneko hi-

rurogeitamarra gara ur. Bikote gazte batzuk arroketa zebiltzan, itsasgora noiz etorriko ordu batzutako uharte bat edukitzearren. Pentsamendu tristetan sartu nintzen: bero, hasten da berotik berora dabilenaz egiten den liburuaren lehen partea nola bertzeak bertze direla, alferkeriatik ihes egiteagatik ere behar den jokatu e.a.,...

Txalupa usteldu bat zegoen goiko nasan. Euri uher betea zuen hondoa. Plastikozko zorro, pote zahar eta zaku zatiren artean silikonazko guante bat zegoen. Eskunarrua! Izaskunen alabak irakasle garbizaleak zituen. Eta orduan algara batean galdetuko nion, esku-narrua? Bere ama haserretu egingen zatekeen entzunda. Lasaitu nintzen Izaskunek etxetik bota nindueanean. Zoratua nengoen. Astebetean jorratuak nizkion sasiarte eta zimur guztiak eskuz, zangoz, mihinez, sudurrez, hiru eguneko bizarrak. Toletea ahur zabalduen artean hartu eta amazoniarrek txotxari sua bizteko bezalaxe eragiten zion. Horretxek ematen omen zion gozoa. Toletea ketan jartzen zuen estrobo leun hark, batez ere eskumuturrekoek elkar jotzen zutenean dilindaka. Baina ez ninduen enborrean iratxekitzen uzten. Txanoa galdutako hortzore tubo bat bezain triste geratzen nintzen. Kapritxu bat izanen zuela pentsatu nuen hasieran. Edo beharbada esperientzia txarren bat izan berria zen. Azkenean bere amarena izandakoaren Mallorcako perlazko errosarioan biltzen zidan. Perlen errudamentuak leun kitzikatzen ninduen artean, Astiz kapitainak nolakoak egin ote zituen moja suediarrekin Armadako Mekanika Eskolan pentsatzen nuen, eta orduan gurutzeta bedeinkatzen nuen. Bi urte pasa behar izan nuen sugaar honek bazterreko laharrak eta kobazuloko pintura paleolitikoak kixkali nizkion arte. Artean norbaitek esanen luke Mirande baino eroskiago nebilela alaba ordezkorekin. Ez zen egia. Laranjaren azalarekin gizonttoa pitoz gora egiten besterik ez nion irakatsi.

Hartu zuen plazerra, grabatu banizkio ukatu egingen zituzkeen

burroak bota zituen, egia da torturan esandakoak ezin direla neurtu egia edo gezurra bezala... Pornografoek aditzak pilatzen dituzte atso astatuen ahoan. Beita merkea. Eguzkia praheta gainera etortzen zait Izaskunen hitz busti errepikatu haiek oroitzean, nola, nondik, zenbat, noraino, noiz arte... Eta bai, irauli zen txalupa errekaen ateka meharrean. Umilazio bat izan zen Izaskunentzat, bere lehen orgasmua zuen. Orgasmua posiblea zen. Gauza ona zen. Zaldiaren adarra behorraren iztapean txertatzeko egina zen, eta ez ume bihurriek makilka lodiarazteko. Orduan etxetik kasatu ninduen. Damutua nago, neuk alde egin behar nukeen etxetik dontzeila utzita. Lemarrauna popan ongi tinkatuz orgasmu eraginda dontzeila.

Eskua agerian zaukan mantapetik. Esku zuri belaska, azkazalik gabeko hatzamarrak, gasoil arrastoak. Txo mozkortua pasarelatik erori eta gauean itoa. Ez. Egun asko egina zen esku hura uretan. Emakumezko baten eskua zatekeen. Emakumezko itoek ahoz gora flotatzen dute, hala uste genuen txipitan. Gizonezkoek auspez. Hala esplikatzen ziguten, azidoa bota behar zitzaiola urari, eta ez ura azidoari. Azidoa maskulinoa, ura femeninoa. É! sobre ella! Baina nola idatzi euskaraz eszena erotiko bat generoak oinarri hartuta? Itoak ohekide leialegiak dira. Euskaraz besterik ez dakite. Kondo puztuak ziren hatz haiek. Ozta nabaritzen ziren azkazalak. Erizainek ezin dituzte azkazalak luze utzi. Azkazal gorri luzeak ile kizkurretaru hurbiltzen. Ukitu gabe ziritzen zidan Izaskunek, zorrak zor.

Azkazal luzeak dituzu
Ai!
Luzatuak azkazalak

Azkazal zorrotzak dituzu
Ai!
Zorroztuak azkazalak

Azkazal gorriak dituzu

Ai!

Gorrituak azkazalak

Katue kriadijek dako gordeta ister tartien. Azkazalduna delako moltza, horregatik esaten diote katua marmoxari Bermion. Larrutu egiten zaitu beti. Laztura zoragarria, haatik, katuaren balakua aranondoaren orpoan. Erizainaren zokoak idatzi behar nituzke orain, argipe urruntzen zitzaidanean, bataren azpian soma daitekeena edo amesten nuena ekarriz: kulero estuegiak, edo kulorerik eza, edo bularren erretena, ziztatza makurtzen zaidanean. Errazkeriak. Eseritzeko esan zidan, besarkatzeko belaunak eta hortzak estutu. Min eman behar dizut. Ornoak haztatu zizkidaten. Ez zen erizain hura, larruazalaren kontaktoa nabaritu nuen. Ziztaketa epidural bat egin behar zidaten, oinazetik gabeko erditze lasai bat izan nezan. Bortxaketa urragarriak antzeko zerbait izan behar du. Zorabiatu egin nintzen une batez. Eratzan ninduten berriz. Berotasuna nabaritutako nuela laster. Eta erredua bezalako bat koskabiloetan. Irri egin zidan hitza esandakoan. Izerdia txukatu zidan. Min eman dizu? Ez, okerrena soinua da. Soinua? Bai. Autoklabearena da, ezin dugu itzali. Ez, orratzak haragian sartzerakoan ateratzen duen soinua. Zer? Bai. Ez nuen inoiz holakorik entzun, inor ez da horretaz kexatu. Ni ere ez naiz kexatu, informatu egin dut, kantatzen ari naiz. Totelka bota nituen hitzak, gehiegi ari nintzen hitz egiten, tortura ez da hobeki pairatzen mozkortuta.

Efektua egiten hasia dela dirudi, nabaritzen duzu erresumina genitaletan? Ez. Arraroa da, froga batzuk egiten dizkizut beste dosi bat sartu baino lehen. Kontuz dosiarekin, jujeak ez du nahi fianbrerik. Deliratzen ari nintzela uste zuten. Mozorrotxoan ipinia zuen orain. Izara baztertu zuen. Zerria, nitaz barre egiteko zen. Begira gelditu zitzaidan. Minik? Ez. Eta orain? Ez. Eta hemen? Ez.

Ia hemen. Ez. Ongi ari nintzen zuzentzen itaunketa, dena ukatzen nuen eta ez nuen deusen minik somatzen, oinazea borrokara sublimatua neukan. Ba atximur egin dizut indar guztiarekin. Bihar ubeldurak izanen dituzu lekurik onenetan. Barre egin zuen mozorrotxoaren azpian. Esplikazio bat eman zidan, amorante zoro batekin egon bazina bezala. Ez dut inoiz ikusi halako efektua egin dionik. Eta ez zidan begirik kentzen nire anaia txikiari. Ez nuen ezer nabaritzen. Adarra jo nahi zidaten. Altxa egin nintzen ukondoan apoiatuz. Begira gelditu nintzaidan. Zutik jartzeko gauza banintz, urka zitekeen katu bat. Pentsamendu tristetan sartu nintzen: Hura zen zakila, hura! Zazpi oin terdi bai luze, makal zuhaitzaren irudira zuzen, pagorik lodiena bezain zabal, arte gogorra bezala trinko, gorosti hezearen antzera zimel e.a.,... Bigarren bat hurbildu zen. Ez zuen mozorrotxorik. Gorritu zen, edo lotsatiarena jo zuen, ez zen posible halako efektua ikusi gabea izana. Lasaitu egin behar duzu, pentsatu beste zeozertan!

Etzan egin nintzen osterera. Neuk egin nuen irri oraingoan. Lasai nago, badakit ez zaizuela komeni esku artean hil nakizuen. Baina ez zuen ulertu, torturako lanak aipatu zituzten berriz, guttiz eroria eduki behar duzu, bestela ezinen dizugu sartu. Sartu? Zerbait entzuna nintzen. Ez, seguru titiharro hark ez zituela aditz laguntzaileak menderatzen. Bai maitia, sonda bat sartu behar dizugu drenatzea egiteko. Eta kable bat hartu zuen. Horrelaxe, oso ondo. Hain azkar zimeltzen al zaizu beti? Ze lastima! Urdanga ahalenak. Begira, pantaila horretan ikusiko duzu nola dihoakizun sonda ureterretik gora. Ez duzu ezer sentituko, horretarako ipini dizugu epidurala. Orain lanean hasiko gara. Har ezazu jarrera ginekologikoa. Irri egin zuten. Nahi duzu izara berriz jartzea zuk ez ikusteko zer ari garen? Nola sentitzen zara, maitia? Manipulatua. Irri egin zuten. Nabaritu duzu zerbait? Bai, urratua bezala. Ez dizugu ezer urratu, hemendik aurrera ez duzu ezer somatuko. Eta batek nire zakutxo zulatua eusten zuen besteak kablea astiro sart-

zen zidan bitartean, biak ere amultsuki, guk umetan igelekin egiten genuen bezalaxe. Kablea nire erraietan gora zihoan, kañisten amuak zizareen ipurtzuloetatik barrena. Iritsi da, ikusi. Orain Panagulisi bezala eginen didazue, ezta? –murmuriatu nuen mihi-nak ahoa betetzen zidala–. Panagulisi bezala? Zer diozu, laztana?

Bai, urrixa sadikook kablea sutan ipiniko zidatek, edo 500 batioko indarra emanen ziotek. Bizirik heldu zen Galindez tiburoietara? Noiz galtzen dute konszientzia itoek? Egia da gure arrabak jaten dituztela lehenik arrainek? Helikopterotik erorian ematen zien bihotzekoak tupamaroei edo lepahezurra hausten zitaien itsasoaren kontra? Ez nuen inoiz itotakorik larrugorritan ikusi ahal izan. Itotako emaztekiekin egiten genuen amets, biluzteko. Barrabilik gabe heltzen omen ziren astebeteko itoek. Nik esku bat besterik ez nuen ikusi inoiz, beti berandu iristen ginen erreskate-ra, itotako emakume baten eskua. Suizida bat izan behar zuen, bazter haietan ez zen marinel edo lanperna biltzaile zebilen emetik. Maria gora zetorren, hondartza estaliko zuen laster. Argiak indar hartzen hasiak ziren. Zigarroa hartu nuen, txalupa ustelduan bota nuen pakete hutsa. Urak berak puztutako bostitiko errapetxoa zirudien guantearen ondoan gelditu zen flotean. Izaskunek itolarrean bezala hartzen zuen arnasa. Galdetu behar niokeen zer sentitzen zen orgasmuan. Seguru flotatu egin zuela, zigarro pakete hustu bat putzuan. Ez neukan presarik. Presa neukan baina ez nuen gogorik bidean stopa egiten hasteko. Egonen zen herrian karneta eskatu gabe gau baterako ohea emanen zidan ostaturen bat. Alaba ezkonberriak utzitako gelaren bat, udan ohi-tuak egon behar zuten.

Erditzea oinazerik gabekoa izan zen. Kablearen muturrean zintzilik neukan zorroa odol-gernuz betea zegoen. Hantxe zegoen nire umea, liktotrizian xehetutako hare aleek inoiz neure giltzurrunean osaturiko kalzizozko oxalato umekia, Izaskunen amaren

arrosarioari galdutako perla. Zorroa aldatu zidan kamañazain batek. Txiza ezin egin bezala nengoen. Ez nuen neure zizare ornoduna ukitu nahi. Sueroaren orratza kendu zidaten. Zer moduz zaude? Izara jaso zuen. Begira gelditu zen. Errukizko irribarra egin zuen. Kendu egin behar dizut. Ez zegoen aditz okerrik. Zutik hobe.

Maratiliz itxi zuen atea. Lotsagarri nengoen ziri hura zakiletik zintzilik. Kondenatuaren zama handiegia izan zen, urkadarra hautsi egin zen, soka zintzilik triste. Ubeldurak dauzkazu lekurik onenetan. Makurtu egin zen, kokoriko jarri zen, aurpegia zuhaitz bakarreko basoaren aurrean. Hobe duzu niri heltzea. Eskuak bizkarretan landatu nizkion. Laztan egin nion bularretakoaren tiranteek eragiten zioten hanturretan, baina ez nuen txori kanturik entzun. Orduan tira egin zion kableari. Lezama Limak ongi adierazten du nik orduan sentitu nuena: tigre jaio berri batek haginka egindako zaldi liluratu baten zuztarra. Nik ongiago idatziko dut: muxarrak heldutako zizareak hartzen duen laztana amutik desenpalatzean.

Minutu luzeak egon ginen geldirik, eskuak erizainaren adarretan ni eta bera masaila nire masta suntsituaren kontra. Beroak bizia ekarri zion, zingurri prozesio bat somatu nuen basotxikin. Inozoa, uste zenuen ez zinela osorik geldituko? Arrain handiegi batez libratuak kainabera iduri harrotu nintzen. Ile luzeetan bildu zuen, Madalenak Kristori oinak bezala ferekatu zidan. Errierta egin zion, zaflada maitekorrak ematen zizkion trufatuz, koldarra, zantarra, baldarra. Zutitu zen bera ere. Oheratzen lagundu zidan. Izara zabaldu zidan. Lotsagarriago gelditu nintzen. Ez ahuldu maitia, gorde indarrak gauerako. Atea ireki zuen. Agur egin zidan ile mutur batzuk ezpain ertzean.

Lekurik onenetan egiten dizkizute, baina okerrena da ez dizutela epiduralik jartzen. Erabiltzen ote dute pentotala? Okerragoa nuke ia. Ze boltairekin kixkaltzen dituzte beltzak Arkansasen?

Emakumezko poliziek torturatzen dute? Panagulisek ez zuen inoiz kontatzen tortura sexualik. Emakumeek ezin dute imajinatu zer egin dezakeen gizon batek beste gizon baten sexoarekin. Txalupa honen putzuaren antzekoa izan behar du burua sartzen dizuten bainera. Gehi esaten dizutena, idiarena jota bertan bota diat, putetxeko konpresak sartu dizkiagu... Amets erotikoak egiten ote ditu poliziak torturatzen duen bitartean? Gurekin bezala amoran-teekin jolasean aritzen dira pistolaren kanoiaz? Komisario baten teknikaz itzali nuen zigarrokina txaluparen karelaen kontra. Itsasgorak estalia zuen hondartza. Bare zegoen. Tabernara hartu nuen, bertan galdetuko nuen oheren bat ematen ahal zidaten. Lakartua neukan eztarria.

Igongailuan iratzarri nintzen. Erizainak erakuslea ezpainetan zeukan. Hirugarrena markatu zuen leihotxoak. Zabaldtu ziren atekak. Kirofanoan ginen, erdilunpean. Pantailetaraino eraman ninduen ohean. Ez zenuen umekeriarik egiten noski... Indarrean zaude, ezta? Trasteak biztu zituen. Altxa maitia. Gogortuko zaizu ala epidurala jarriko dizut efektu arraro hori egiteko? Izerditan zegoen, arnas hestuka egiten zuen berba. Apollinaireri ihes eginiko erizaina zela esanen zenukete. Izara kendu zidan, adatsa erori zen nire begien aurrean eta ezpainetan hartu zidan, koska txikiak eginez zuritu zuen. Ikusi nahi duzu? Ari da, ari da. Berak hitz egiten zuen orain ahoa bete, anestesia hartutakoaren antzera. Atzera bota zuen adatsa. Madalena zen haragiaren biztuera eragiten. Altxa laztana. Utzi niri hor. Biluztu zen. Mami-Mardul, Lokotx-Gizen, Motxin-Gazi, Ezpain-Gordin. Etzan zen kamañan, kanoi ekografikoa sabelera zuzendu zuen. Biztu ezazu monitorea, horrela. Zatoz, zatoz. Ai maitia, ikusi egin nahi dut nola egiten duen zuloa sator satar horrek nire baratzen. Bildu nintzaion. Izerditua zegoen benetan. Parasolaren eta josteko makinarren elkartzan ginen ospitaleko kamaña ebatsi batean. Nik zuri atzo bezala maitia, poliki eta gora. Kitzikagarri zitzaion auzolana

pantailan ikustea. Begira ze ederra. Badoa gizagaxoa, badoa kotta. Monitoreari begira egin genuen, ikasleak baikinak. Programa zientifiko bat zirudien, ameba erraldoi bat indarka. Zergatik zoratu zen nirekin halako mediku puskak bertan edukita? Saiatu nintzen eredugarri egiten, nire begiak ongi ordaindutako saio bat kabinan ikusten zegoen klienterenak balira lez.

Pozik hartuko nindukeen, baina ezin nion deitu. Ospitaleko telefonoak hartuak zeuden aspaldian, eta halako istripuetan seguru mediku-erizainenak ere kontrolatzen zituztela. Maitasun zita bat beti da susmagarria. Ez, segi eginen zioketen. Edo ez ninduen ezagutuko. Erituekin laketzen zen ninfomanoa zatekeen. Izutua nengoen, ez zen horrenbesterako. Lasai gaitezen. Ezagutuko nau, bila etorriko zait, etxera eramanen nau, eta afaldu baino lehen videocasseta ipiniko du magnetoskopioan eta biluzten hasiko da pantailan fibroma gotor bat eztarria urratzen hasten delarik, pentsatu nuen. Zurea da maitia, esanen zuen. Eta nik zuri bezala orain zuk niri laztana, edo nahiago duzu sondaren grabaketa ipintzea, eta orduan atea suntsituko zuten eta urduri apuntatzen nindutenei Eluarden poema errezitatuko nien:

Zer nahi duzue, kalea hartua zegoen
Zer nahi duzue, desarmaturik geunden
Zer nahi duzue, gaua etorria zen...

Utzi behar nion tristetasunak pentsatzeari. Plan bat antolatu behar nuen, eta agudo xamar. Atzean utzi nuen txalupa abandonatua. Niri behintzat ez zidaten egiten Panagulisena. Ez nuen asmo zehatzik, baina banekien berriro lortuko nituela kontaktoak, lamiaren bat sortuko zitzaidala nonbait, bilduko ninduela erregarri azidoak bezala eta desegin egiten ninduela itoen isiltasuna gorde nezana, maitale leiala izan nendin. Eta urtu baino lehen zer esanen nion pentsatu nuen azkenekoz, beste idazle batena plagiatuz, beharbada ongi konponduko gara elkarrekin, ehuneko hirurogeitamarrean ura naiz, zu bezalako ur gazia naiz.

Kritikabideak



Aurelia Arkotxa

Amaia Iturbide

Jon Kortazar

Arestiren hiri mitikoak

Babilonian gatigu,/baikeunden...

Hitz horiek ez zaizkigu Babiloniako katigu garaietarik heldu, ez ditugu duela bi mila bostehun eta gehiagoko Ezekielen erranetan atxemanen, ez eta Isaiasen profezian. Gerta zitezkeen:

«Bainan populu hau larrutua eta deboilatua da; gazte guziak artean atzemanak eta presondegietan sarthuak dira; arthikiak dira nork biluz, eta nihor ez da horien atheratzeko; athikiak dira nork larru, eta nihor ez da errateko: utzatzue».

(Isaiasen profezia, 42.kap., 22. Duvoisinien itzulpena-1859-1865)

Isaiasen hitzek ongi agertzen dute nola Jerusalemeko suntsitzearen ondotik berrogei ta zortzi urtez Judea eta Israelgo jendeak Babiloniara atzerriratuak izan ziren (686 Kristo aitzinetik 538ra arte) eta zenbatetarainokoak izan ziren han jasan sufrikarioak. Ez, gorago aipatu hitzak ez dira Bibliatik ateraiak, Arestirenak dira, *Maldan behera*-n den laugarren kantuan *Estratan eginiko gogoeta eroak*-en aurki daitezkeenak.

Gogoeta eroak ez dira *Maldan behera*-ren pertsonaia nagusiarren, Joaneren, ibilbidean kokatzen zentzu hertsu batean, nahiz eta haien lekua oinarritzkoa den ibilbide horren erranahi sakonean sartu nahi baldin badugu,¹ hor baitzaigu agertzen, «gogoeta» hitzak salatzen duen bezala funtsean, Arestik orduko garaiaz zuen ikuspundua.

1. Ikus A.ARKOTXA : *Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti*, Anejos del ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993.

Ikus ere «*Maldan behera*-ren irakurketa baten inguruan» in *Hegats* IV, Donostia 1991.

Maldan behera-n antzinateko bi hiri mitiko ere aurkituko dira: Babilonia eta Kartago, hor ditugu ere gainerako poesietan Jeriko eta, bistan dena, azpiagerian, Gernika eta Bilbo,^{1 bis} hauek ongi XX. mendean kokatuak.

Zer eragin ote zuten Arestirentzat antzinate eta Bibliatik atera hiri mitiko horiek?

I Babilonia hiri bigindu

Arestirentzat Babiloniak² botere absolutuaren itxura dauka. Itxura biblikoaren erabiltzeak ez ote digu erakusten «askatasunaren mito»³ baten aitzinean gaudela?

Bai batzutan, bortizki oihukatzen duelarik, Arestiren abotsak Isaias profetarena dirudi:

«Babilonian katigu,
baikeunden euskaldunak.
Idiak uztarri pean,
ziren gure pareak.
hantxe genbiltzen gu nola,
astoak zama-pean».⁴

Isaiasen gomendio hauek bere gain hartuz:

«Ilkhi zaitzte Babiloniatik, ihes egiozute Kaldearrei».
(XLVIII. Kap. 20)

-
- 1 bis. Basaibar ere hor dago, baina bakarrik antzinateko hirietaz gara hemen interesatuko.
 2. Ikus M.ELIADE: « (...) orienteko hiri guztiak munduaren erdian kokatzen ziren (...). Babilonia Bab-ilania zen, «jainkoen atea» han baitziren jainkoak lurrera jaisten.» (*Images et symboles*, Gallimard, Paris 1952, 53.or.). Ikus ere Jean Claude BOLOGNE : Les allusions bibliques-Dictionnaire commenté des expressions d'origine biblique, 41 or., 1991.
 3. Ikus N.FRY: *Le Grand Code et la Littérature*, Seuil Poétique, Paris 1984 (*The Great Code, The Bible and Literature*-en itzulpen frantsesarendako).
 4. G.ARESTI: *Gabriel Arestiren Literatur Lanak*, I, 106 or. (ikus in op. cit. 10. tomoa, Donostia 1986.)

eta

«bihur zaitezte zuen baithara lege-hausleak».

(46. kap., 8, Duvoisin-en itzulpena)

zeren hona zer dion *200 Puntu* -n:

«Altzatzen ezpagara, galdurikan gaude
Dudatu gaberik, egin dezagun gerra
gure etsai zitala, desegindu arte».

(Aresti 1986 I, 175)

«Altxatzea», esperantzazko aterabide bakarra:

«hiltzeko edo ez hiltzeko
beti geratzen baitzaio
gizonari
esperantzaren
bat».

(Aresti 1986 IV, 168)

Isaiasek zabaltzen du ere esperantzazko mezua Babilonian preso direnek handik ihes eginen baitute eta ez baitira «ez goseturen, ez-eta egarrituren». (Isaiasen prof. 49. kap., 10, Duvoisinen itzulpena).

Euskaldunek ez dute ezer ikustekorik, historikoki, Babilonia-ekin, baina, dudarik ez Babiloniaren itxuraren azpian enperadoreen Erroma dago;⁵ eta dudarik ez Arestirentzat Francoren diktadura, Madrilgo boterea eta Bilboko alderdi ilunenak. Bilbo «infernu behere»-ko lekua, Jurgi Oteizari diotson bezala:

«Bilbon eztagoela sobera kanorerik,
sobera zentzurik,
eta honekin erakutsiko dit
nola
profetak ere

5. Ikus N.FRY ere:

«Emagaldu Handia judutarrak preso eraman zituen Babiloniarekin identifikatzen da eta, bistan dena, Cesare jazarleen Erromarekin ere.» (in op. cit. 149/150)

zorritasunez
kutsa litezkeen.
baina nik azaldu behar diot,
esplikatuko diot,
zer den,
zergatik bera oraindikan ezten
euskal arimaren zolara heldu,
gu itotzen garen
infernu behere honetara.
Gu ezkara hemen lasai
bizi.
Guk eztugu sentitzen
paradisu bat.
Dantek ere etzuen holakorik
asmatuko.
Hau da basatza haundi bat.
Hemen aingeruen arimak ere likistuko lirake.
Hemen bakarrik gordetzen dira garbirik
dontzeila aberatsen florea,
ezen ez lorea.
Hemen ezin liteke harnasarik har.
hemen ito egiten da libertatea».

(Aresti 1986 II, 133/134)

Bibliako gertakariak sartaldeko imaginarioan bederen ukan dezakeen eraginaren ikusteko gogora daiteke Ameriketako beltzen *Go Down Moses* kantuan agertzen den Egipto sinbolikoa:

«Go down, Moses
Way down in Egypt Land
Tell old Pharaon
Let my people go.»

Fryek dio:

«Israelitak ez ziren beltzak, eta XIX. mende bukaerako beltzek ez zuten deus Egipto zaharraren kontra, bainan gizon talde batek eskla-boek esklabokeria senditu zuten bezala zerbait hain barneki sendi-

tzen duelarik, Historia hauts eta errauts baizik ez da: mitoak (...) bakarrik dezake esperantza poxi bat eta laguntza ekar.»

(Fry 1984-96)

Babilonia hiri biguindu, hiri gorrotatu, infernuetako hiriaren aurka Kartago, martirioaren itxura daukan hiria, altxatzen da.

II. *Gernika delenda est*

«Kartagoko errautsetan,
etzen aurkitzen urik.
Hango amen ditietan,
esnea baitzen urri.
Haur txikiak hil ziraden,
gosez eta egarriz.»

(Aresti 1986 I, 162)

Maldan behera osoan, gorago erran bezala, bi hiri bakarrik aipatuak zaizkigu, biak «gogoetetan»: Babilonia (C5) eta Kartago (F21). Kartago hiri-eme, ama den hiri,⁶ urik gabe, bizi-iturririk gabe, esnerik gabe dauden amen diti xukatuen isomorfoa⁷ dena. Kartago maitagarria da. Gorago errana izan den arabera, Babiloniaren aurkakoa. Babiloniako euskal katiguak Kartago/Jerusalemetik datozke: 146 Kristo aitzin erromatarrek suntsitu zuten Kartago eta 587. urtea Kristo aitzin Kaldearrek suntsitu Jerusalemen nahasten dira, Scipione afrikarrak eta Nabukodonosor II.ak bat egiten duten bezala.

6. Ikus N.FRY :

«Hiri-irudimenaren erdi naturala Jerusalem da, eta menpe diren hiriak sinbolikoki emeak dira *metropolis* (ama den hiri) hitzak erakusten duen bezala.» ikus in op. cit. 221 or.

Ikus ere C.G.JUNG in *Psychologie et Alchimie*, Buchet/Chastel, Paris 1970 (frantses itzulpenarendako), 142. or.

7. Ikus G.DURAND: *Les Structures Anthropologiques de l'Imaginaire*, Bordas, Paris 1969.

Nola ez gogora orai 1938ko maiatzaren 5ean Iratzederrek idatzi zuen *Gernika* poema? Hona Arestik seguraski gogoan zeuzkan bi bertsu:⁸

«GERNIKA!

Orai datza ohiko
Kartago bezala,
Paret beltz handi batzu
baizik ez dauzkala.
Jazko euskaldun-iri
haren gorputz hila
Nigarrik egin gabe
nola ikus, nola?
GERNIKA!

GERNIKA!

Xorätzen iluntzen daut
hitz horrek bihotza.
Mendek jakinen dute
haren zorigaitza...
Numanze ta Kartagoz
ez gaitezke mintza,
Goraki erran gabe
Euskadin, han, datza:
GERNIKA!

(Gernika, 1983, 32)

Jerusaleme, Kartago edo Numantziako «pareta beltz handiak», Gernikakoak dira Iratzederrentzat. Gauza bera erran dezakegu Arestiren Kartagorentzat. Hiri martirizatuak unibertsaltasuna hartzen du.

8. Gogora dezagun Arestik Iratzeder laudatzen duela *Maldan behera* -n den B6 kantua *Iratzederren* izendatuz (kasu horretan Iratzederren *Iratzederren* olerkia komeni litzateke ere irakurtzea, ikus *Biziaren olerkia* bilduman).

Hiri baten konkistatzean, haren *temenos*-a⁹ hausten da eta sakratua den eremua puskatzen. Hiriaren martirioak beti izigarriko oihartzuna dauka gizakiaren psikean.

Hiriaren suntsitzea, lur-eme/amaren heriotzaren metaforaren bidez agertzen da, Iratzederrengan Arestirengan bezala (ikus berriz Kartagoko «amen ditietan» nola esnea zen urri eta nola «haur txikiak hil ziraden,/Gosez eta egarriz»). Iratzederrek, berriz, 1936 .eko *Orro ikaragarri*-ak hauxe dio:

«Anai odola herrari
Eskainiz nasairik,
Euskadi gure amari
Bularrak beterik,
Haurnoak hurrupatzean
Hilen dire gerruntzean.
Zer aterako da? zer?... hortarik?».
(Iratzeder 1983, 24)

Gerla zibilaren garaiko beste poema batean itxura berdinak aterako dira:

«Bere haurnoa salbatu nahiz, ihesi joan da joan ama;
Laster mendiez alde huntarat besoetan baderama:
Zori oinazen artetik doa. Gaixo amaren marruma!
Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,
Zorigaitzezko Euskadi!...

Zelaian bada harri meta bat, erditik kea dario...
Jabe zaharrak, hurbil jarririk, nigarrez behatzen dio.
Zenbatak dute aiten egoitzer tristerik erran adio!
Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,
Zorigaitzezko Euskadi!».

(Iratzeder 1983, 26)

9. *Temenos*= tabu den borobila.
Ikus C. G. JUNG in op. cit. 75/76. or.

Irudi berdina aurki dezakegu pintura eta zineman ere. Artetak, adibidez, ama martiritatua bere haurrarekin pintatuko du, Picasosok *Guernica*-n eta *Guernica*-ren prestatzeko egin marrazki zerranda luzean ama bere haur zenduarekin edo biak hilak errepresentatuko ditu.

Mourir à Madrid F. Rossif-en filme ederretik atera xuri ta beltzezko liburuan¹⁰ ere itxura berdinak ikusiko dira. Gernikan 1937ko egun iduzkitatua ama eta haur hiletaz hartu argazkiak bereziki gogoratuko ditugu. Gerla guztietan, amek eta haurrek baitute bortizkeria, injustizia, modu latzenez agertzen.

Bainan, zibilizazioetan zehar, mendeetan zehar, egoera historikoen aldakuntzen arabera, mitoez erranahi ezberdinak ukan ditzakete.¹¹ Batzuetan, testuinguru historikoaren eta pertsonaren sendimenduen arabera, itxura bat ere arras alda daiteke: garai batetik landa juduek ez dute gehiago populu martiritatuaren erranahia ukanen Arestirentzat eta Jerikok, juduek preseski Jahveren manua segituz kondenatu zuten palestindar hiria,¹² Gernikaren erranahiaz beztituko da.

10. Ikus filme horretaz egin zen liburua: F. ROSSIF, M. HAPSAL, *L'histoire vécue de la guerre d'Espagne-Mourir à Madrid*, Marabout université, Paris 1963, eta bereziki *Guernica* kapituluaren 83/84/85. orrialdeetan diren argazkiak.

11. ikus N. FRY in op. cit. 149/150. or.

12. ikus JOSUE VI. Kap.-17:

«eta hiri hau izan bedi anatema, eta huntan diren gauza guziak izan beitez Jaunarentzat : Errahab lilitchoa bakharrik geldi bedi bizirik (...).»

VI. kap.-20:

«Beraz populu guziak oihu egiten zuelarik, eta turutek durrundatzean, otsak eta durrundak jo ondoan ostearen beharriak, harrasiak ordu berean lehertu ziren, eta batbedera igan zen bere parrean zuen tokitik, eta hiria hartu zuten».

Eta VI. kap. 24 :

«Ordean hiria eta hartan ziren gauza guziak erre zituzten, lekhat urhea eta zilharra, kobrezko eta burdinazko untziak, zeinak Jaunaren khutchako konsekratu baitzituzten». (Itzulpena Duvoisin, 1859-1865, fac-simil 1972)

III. Jeriko berria

Urterik ez daukan gaztelerazko *Lamento por la prision de G. Moral Zabala* poeman ohar gaitezke Arestik ez dituela gehiago euskaldunak juduekin identifikatzen, lehen, *Zuzenbide debekatua* n, egin izan zuen bezala:

«Eta egun batez Sion berri batera
heltzen bagara gu, gezurrezko juduok,
Jainkorik eztaukagun populu triste hau».

(Aresti 1986 I, 294)

Urte batzuk geroago hona zer dion goitian aipatu poeman:

«[...] Y me sacude un golpe de vapor
de agua sucia la boca y los riñones,
y miro al cielo para preguntar
si es cierto que el señor de los Ejércitos
los guía a nueva tierra prometida,
y seremos nosotros cananeos,
y las murallas de nuestra ciudad
acaso se derrumben cuando suenen
sus agudas trompetas. Miro al cielo,
interrogo; y no responde nadie».

(Aresti 1986 V,111/112)

Israeldarrak ez dira gehiago Lur Hitzemanaren bila zihozten Moisen umeak izanen.

Arestik Josueren Liburuaren hirugarren kapituluan aurkitzen den Jerikoren hartze eta suntsitzea arras begi txarrez ikusiko du, garai batetik landa lurrik gabe eta zapalduak diren palestinarrekin identifikatuko baititu euskaldunak.

Josuek zioen:

«jaunaren aitzinean madarikatua izan bedi, Jerikoko hiria altxatuko eta berrituko duen gizona. Hartako asentuak eror beitez haren seme lehenaren gainera, eta hartako atheak haren azken semearen gainera».

(Josue III, 6. kap., 26, Duvoisinén itzulpena)

Eta Aresti argi eta garbi altxatzen da anatemaren kontra.

Noiztik aldaketa hori? B. Atxagari 1974an idatzi gutun batek salatzen duen bezala, 1967.eko Palestina eta Jerusalemeko okupatzearen ondotik:

«Zazpi¹³ egunetako gerran euskaldun guztiak zeuden israeldarren alde. Ni palestinoen aldekoa nintzela euskaldun gaiztoa omen nintzen. Anti-semita deitzen zidaten.

Udazken hartan Lamentazioetako Murruaren aurrean zegoen kazbah palestinoa israeldarrek destruitu zuten beren bulldozerrekin. Baina etxeak ez zituzten desokupatu. Beraz berdin joan ziren bertederotara etxeetako paretak, nola zartaginak, lapikoak, umeak, gizonak eta andre ernariak».

(Aresti 1986 10, 177)

Jeriko eta Gernika nahasten dira, Gernika Arestirentzat sekulan ahortzi ez daitekeen zauria baita. Haren «ebanjelioa»:

«Eta hi,
Gernika,
ene ebangelioa
haiz:

También Tomas Meabe fue mi camarada.
(Nazim Hikmet, golpea, hiera, dale).
Compadre Blas, si traes de Cuba mal, he
de convertir tu noche en alborada.

«Mi corazon es fusilado cada
mañana gris que el sol en Grecia sale.
Un arbol de Gernika vale
por... Nada (...).»

(Aresti 1986, IV, 164)

13. Dirudien bezala Arestik 1967ko gertakariak baldin baditu gogoan, sei egun iraun zuten (eta ez zazpi) 1967ko ekainaren 5etik 10a arte.

Jeriko *Berria*, martirizatua den Palestina da, palestinar lurga-
been askatasunaren mito bilakatu da:

«[...] Hortxe dabilça judu hosteac
Jerichoren inguruan;
murrailac ere hautsico dira
cembait asteren buruan.
Haurrac bothaco dira
biciric hilobira,
hecatombe seguruan,
hau leitzen dugu haien Biblian,
Ioshuaren liburuan.

Esne ezta darien lurren
orain da jabe cerria;
ahardi horrec ceinen liraina
duen beguira guerria.

Eta begui-okerrac¹⁴
biztu dituen gerrac

eztira gauça berria:
Animaliec uztartu dute
Palestinaco herria.

Jericho berri içugarri bat
da Palestina osoa;
bertan juduec goçatzen dute
bicitze lastimosoa!
Nola bicico dira batera
ardia eta otsoa!

Palestinoen burrucan guinen
heuscaldunac ere sarthu

14. Aresti Moshe Dayanez mintzo da. Moshe Dayan 1967tik 1974arte Israelgo Estatuko Gerlako Ministro izan zen eta «sei egunetako gerla» bezperan Defentsako Ministro izenda-
tua.

irlandarrac eta kurdoac
itsuqui ciren ausartu
 eta vietnamitac!
 haiekin siamitac...
hoiec ez dira lokartu...
Libertatera daraman bide
hori nahi dugu hartu...

Ea guztion artean dugun
beraren thronotic kentzen
urrhezco jainco judua eta
bere sceptruea etentzen
 libre içanen gara
 nola udan enara
airean arin aldentzen
gure jabeen orhoitzapena
bethico dugun azquentzen».

(Aresti 1986 V, 182-183)

Bortizkeria eta esklabokeriaren parean itxura arinak, airezkoak, goiti doazenak altxatuko dira: zuhaitz kosmiko,¹⁵ harri zut,¹⁶ alzi-
fre zuzen («Nola diren luze/altzipresak gauean!») eta ere, liberta-
tearen erranahia duten hegaztinak, «enara», goragoko poeman
bezala, zikoinak ere, *Glosa de las cigüeñas*-en:

«Si de lejos venís y vais más lejos
si cantáis libertad en ténues ecos,
si es que esclavas no sois (de quién) ni dueñas».

Tomas Meaberen zikoinetaz hauxe zion Arestik:

15. Ikus, adibidez *Maldan behera*-n den B2 kantua *Hariztia*.

16. Harriaren trilogiak erakusten duen bezala, harriak erranahi simboliko handia dauka Ares-
tiren obran. Ikus bereziki *Profeta bati (Jurgi Oteizari azaldu nabirik)* poema (*Harri eta
herri*-n, Q III. zatian).

Ikus A. ARKOTXA in op. cit. 145/151. or.

«Tomas Meaberen alegi bat etortzen zait burura orain: Zikoinak. Harentzat zikoinak, hegaztin bakan hauek, libertatearen sinboloak dira (...)».

(Aresti 1986 X,199)

Hitz horien idaztean zati hau zukeen gogoan:

«Ahora pasan, símbolo vivo de lo que cada vez más creo que es el único modo de vivir;

pasan por lo alto, entre nubes hostiles, como perdidas;

y siento no sé qué respeto raro.

Encuentro bien esta vergüenza de las cigüeñas de tener hermanos que no aman la libertad, que son y no son;

La domesticidad va en contra las alas, es mal ejemplo para las crías y un peligro para el porvenir de la especie (...)».¹⁷

Azken finean zer diferentzia mitoarentzat (*ez historiarentzat*), Egipton hebraitarrek, lurralde okupatueta palestinarrek eta frankismo garaian euskaldunek jasaten zituzten egoeren artean? Bide berdina hartuz Franco/Janjanek Pilato eta Hitlerren itxurak hartuko ditu:

«Orain Janjan eta Adolfo ta Pilato damutuko dira (...)».

(Aresti 1986 I, 294)

Arestirentzat diktaturak dakarren ixiltasunaren kontra poeta *outsider*-aren¹⁸ abotsaren entzunaraztea da garrantzitsuena, askatasunaren hitza onda ez dadin:¹⁹

«Hay que cantar, pintar entre la gente nuestra,
y no marchar, quedar hombro con hombro, junto
al hombre gris que aquí padece y bebe mucho.

17. T. MEABE (1968): *Catorce fabulas*, Bilbao: Kriselu. 121. or.

18. Ikus G. ARESTI : «Poesia eta euskal poesia» (Aresti 1986 X,15)

19. Ikus TODOROV N. FRYen *The Great Code, The Bible and Literature*-n itzulpen frantsesari egin dion hitzaurrean, 5/37 or.

«nos necesita el hombre aquí, y hay que aguantar,
amigo mío, un día más, un cuadro más,
un verso más, un siglo más. Un pucherazo más».

(Aresti 1986 V, 120,121)

Jon Kortazarri, 1992. urteaz goerotik Euskal Literaturaren katedraduna denari, irakurri dizkiodan liburuen artean hauexek aipatu beharko nituzke: *Mikel Zarateren prosa, Teoría y práctica de Esteban Urkiaga "Lauaxeta", Literatura Vasca: Siglo XX, Laberintoaren oroimena, Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza, Luma eta lurra* eta uneotan esku artean daukadan eta iruzkintzera noakizuen *Euskal literaturaren historia txikia*, Unibertsitateko irakaskuntza-proiektu batean oinarritua eta gainerantzekoekin anaikidetuz hau ere lumaz eta lurraz oratua.

Ohituta gauzkanez, oinarrizko, mamitsu eta kritiko datorkigu oraingo honetan ere J. Kortazar, literaturgile ezezik historialari ere, sortzaile ezezik datu-biltzaile ere, bere baitatik aritu arren, besteen iritziak irakurri, jaso eta irauliz. Idazkerari kontu eginik, azpimarratu behar da esaldiak konzeptu eta asmoz lepo eta hegaz doazela, literatur-ikasle soil batentzat tinko samarrak, aukeran, baina bestaldetik aitortu beharrean gaude hori ere behar duela, benetako literatur-kritika eragilea izango bada. Eskema bera gehiegitan errepikatu izanak liburuaren hezurdurarikalte amiñi bat egin diezaiokeela pentsa baliteke ere, metodologia oro, aukeratzten dena aukeratzten dela, horretara mugatua dagoela baieztatzean ez dugu inor harrituko.

Bere laburrean zehatza deritzodan hitzaurrearen ondoren, bi atal nagusitan dator itxuraz «txiki» dei dezakegun saiakera hau:

lehenengoa “Ahozko literatura (XVI–XIX)” eta bigarrena “XVI–XIX mendeetako euskal literatura. Gaiaren nondik norakoak”.

Lehenengo atalari dagokion aurreneko kapituluak, izenburuak berak adierazi bezala, aho-tradizioko literatura eta ahozketasunaz dihardu. Zenbait jakintsuren aburuak bildutakoan, balio estetikitik abiatzen den aldetik zail zaigun definizio batera eta muga batzuetara hel gintezke, hots, bi ahozko literatura-moeta daudela onestera: bateko, tradiziokoa, komunitateak igorriaren igorritz bere egiten duena; besteko, ez tradiziokoa, komunikazio estetikoa behin bakarrik sortzen.

Bigarren kapituluan euskal tradizioko generoak dakartza gal-tzarbean J. Kortazarrek. Lehenengo eta behin euskal baladari egiten dio toki, esanez istorioren bat kontatzen duen poema dela tradizioko kontapoesiari atxikia, Joseba Lakarra eta bestek lau aro bereiztu izan dituztela, euskal baladari buruz ikerketarik ere bada-goela (metodo historikoa, literatura folklorikoaren balio estetiko eta poetikoetan sustaturiko korrante kritikoa eta metodologia semiotikoa direla medio) eta baladaren hizkuntza poetikoaz bezala, hala narratibitateaz nola kontakizunaren morfosintaxiaz badiukegula zer esanik. Hurrena, kantu lirikoaren sabelean koplak zaharra eta Ipar Euskal Herrian XVIII. mendean sortu genero lirikoa garatuko ditu. Eta, azkenik, lerro sintetikoaren bidez tradizioko beste zenbait generotan murgilduko da buru belarri, kontakizuntza tradizionala, errefrauak eta igarkizunak, hurrenez hurren aztertuz.

Hirugarren kapituluan edo tradiziokoak ez diren generoak aipatzen ditu. Pastoralak buru, eta Arene Garamendiren definizioarekin bateratsu, Jon Juaristiren «ondorio ikaragarria», Oihartzabalaren iritzia pastoralaren hedapenari buruzkoa eta, Hérelle, Oihartzabal eta Arene Garamendiren eskutik pastoralaren gaien errepertorioa aurki ditzake irakurleak. Geroxeago, pastoralaren an-

tzezenaz makinatxo bat ohar (antzezleriak, koloreak eta jantziak, tipologia eta mugimenduak, musika eta kantua, espazioa edo pastoralaren ekintzak), hainbat burutapen arestion aipatu ikerlari-rien bidetik eta, pasarte honi buru emanez, pastoralaren estiloaz nabarduraren batzuk. «Beste zenbait antzezkerak herrikoi» derit- zion azpi-atalaz den bezainbatean, bestalde, maskaradak, ihaute- rietako fartsak eta xaribariak datozkigu baxuerliebe bat eginik. Zilegi bekit aitortzea azpi-kapitulu hau izan dela gehienik gustatu izan zaidana. Katearen ibilbidean eta osatu beharrak zor, bertso- laritzaren artisautzari egiten dio tarte, noiz ezpalka noiz ate-joka, belarriak eta hatzak papererako bidean irule-zorrotz ibilaraziko dituela. Aurreko eskemei darraie honetan ere: definizioa, bertso- laritza-erak (entzule aurrean eginiko bertsolaritza zein idatzitakoa), bertsolaritza-aren poetika, bertsolaritza-aren historia, bertsolaritza-aren inguruan zenbait arazo (poesia landuaren eta bertsolaritza-aren arteko hurbiltasuna dela eta) eta bertsolariak historian (metodoaz aritu ostean, Pierre Topet Etxahuni eskua luzatuz). Batik bat, behar beharrezkoak ez esateagatik, Juan Mari Lekuonaren eta Aita Zavalaren hitzak gogoangarriak gertatzen zaizkigu.

Bigarren ataleko lehenengo kapituluak, XVI-XVII. mendeen artean gaketuak, Bepizkundean du hasiera. Bateko, Bernat Etxe- pareren bizitza eta egoera historikoa, beraren literatur-lanaren kokagunea (Ertarokoaren eta Bepizkundearen artekoa, omen) eta lan poetikoaren azterketa (neurkeraren gaineko Jon Juaristi eta Patxi Altunaren iritziak, Proventza-ko poesiaren kutsua, egi- tura eta estilo primitiboa). Eta, besteko, Joanes Leizarraga (pro- testantismoaren hedatzailea eta idazkera-erregistro kultua ezar- tzeke lehen ahalegina). Barrokoan egingo du ildo hiru puntuo- tan: testuinguru orokorra (Trentoko Kontzilioaren fenomeno semiotikoa eta Sarako eskolaren fenomeno literarioa), Pedro Axu- lar (bizitza, barrokismoa –Sarasolaren ustez, estilistikaren kontua dena– eta *Gero* eta beronen argitalpenak) eta Joanes Etxeberri.

Klasizismoak bukaera Oihenart-en inguruan aurkituko du (bizitza, lan poetikoa –barrokoa eta klasizismoa uztartzearekin batera Mitxelena, Sarasola, Jon Juaristi eta Altunaren aburu jakingarriak aurkiditzakegu– eta baita Oihenarten poemen ikerketa baterako asmo zizelkatuak ere).

XVIII. mendeari eskainitako bigarren kapituluan neoklasizismoak hartuko gaitu, Aita Larramendi euskal hizkuntzaren lehen arau-emailea eta antzerkia (Barrutia, Munibe eta Juan Antonio Mogel, azken hau ere atal honetan sarturik agertzen baita) erpin izango ditugularik.

Hirugarren kapituluan XIX. mendeak erromantizismoari zabaltzen dizkio ateak hala Hego Euskal Herrian (Azkue, Bilintx, erromantikoena, eta Iparragirre «bardo»a oroituz) nola Ipar Euskal Herrian (Larresoroko apaiztegiaren eta Lore Jokoen funtzioak zehazteaz gain, Jean Baptiste Elizanburu bertsoegilearen hizkuntzaren maisutza eta Felipe Arrese Beitiaren hitz jario lirikoa datozkigu trumilka).

J. Kortazar: 1997 *Euskal literaturaren historia txikia*, Donostia: Erein.

1. Poema-liburu bi

1.1. Eskasa izan da aurtengo poesia uzta, lerro hauek idazten ditudan unean, Durangoko azokarako berri gehiago zabaltzen ari diren garaian; ez, alabaina, kritiko despistatu batek uste duen bezain urria. Ekainaldean Jose Felix Azkonak *Artius* lana argitaratu zuen, kritikalaria eta editore horren hitzengatik ikusten denez oihartzun handirik gabe.

Azkona, aspaldi honetan Nafarroan gorpuztu den mugimenduaren partaidetzat har dezakegu, izen hauekin batera: Juanjo Olasagarre, Patziku Perurena, Joakin Balentzia eta Juan Karlos Lopez Mugertza olerkigintzan; Eduardo Gil Bera eta Jon Alonso saiogintzan; Aingeru Epalza eleberrigintzan. Txema Aranazek Pamiela argitaletxearen inguruan egiten duen berpizte lana ahaztu gabe.

Azkonak, Korrok aldizkariko sortzaile eta kideak, *Artius* libururarekin Bilbao Bizkaia Kutxak eta Euskaltzaindiak antolatzen duten saria irabazi zuen.

Liburua zati handi bitan banaturik dago, nahiz eta sei izan atalak. Lehen zatiak haikuak biltzen ditu, dirdiraz agerturiko pentsakizun poetikoak. Bigarren zatiak bost atal ditu, eta *Artius* Basaburuan barrena doan ibaiaren izena bada, ibaiaren antzera doaz hemen genero eta modu desberdineko poemak. Hala ere badute lotura bat ibaiaren izenaren gaineratik. Poesia ekologikoaren barnean kokaturik, gizadiaren eta izadiaren arteko pentsakizuna

da Azkonak liburuan eskaintzen duena. Erregistro poetiko desberdinak daude liburuan, idazleak aitortu duenez, molde eta garai desberdinetakoak baitira testuak.

Inoiz zientzia-poesiara hurbiltzen da, izen zientifikoari poetikotasuna bilatuz, beste zenbaitetan ordea, egunerokotasunak eta maitearekiko solasak estaltzen dute hitzaren nagusitasuna testuan, Luigi Anselmiri ikusi diogun moduan.

Hizkera poetikoak surrealismoaren eragina gogora ekartzen du. Azkonaren lanek erakusten dute pertsona batek hausnarketa: «Bakardadearen eta infinitoaren artean/ itsaso fantasmagoriko bat» en erdian. Norberaren izpia da liburuak agertu duena, «odol puruaren bila baitabil basapiztia Sarajevon», mundua inguruan galtzen den artean. Poetak lausoz, batzuetan ezjakintasunez, begiratzen dio suntsipenari.

1.2. Intimoa da Mikel Ibargurenen *Hemen gauak lau ertz ditu*, Susa argitaletxe berrituak kaleratua. Lau zatitan banandua, lau ertz arrotz, errealitateaz haraindi, testuak lirikotasunaz hasten du bere bidea: «Zure ametsaren sabelean bizi nahi nuke», eta galderen oihartzunak, kartzelara, idazlea aurkitzen den kartzelara heltzen dira. «Baina hemen unibertsoa/ Zapata-kaxa baten barruan kabitzen da» baieztatuz, pertsonaiak lau ertz dituen kaxa horren muga hautsi nahi luke irudi-mundu eta idazkeraren bidez.

Agian, testuan nagusi den sentimendua erreferentziarik eza da, pertsona eta pertsonaia poetikoa galdua balego bezala: «Umezurtz daude ene eskuak», «Eta inork non dagoen ez dakien/ Inoren lurra da oroimena».

Aspaldiko partez, Susa aldizkariak kartzelari eskainitako ale berezi hura atera zenetik, ugalduz doaz kartzelaren gaia duten liburuak gure artean. Sarrionandia da nagusi horretan, eta beste alor batzuetan ere bai. Eta durangarraren gerizpea ukaezina da

testu honen moldapen eta irudi munduaren sorreran: amaraunak, bakardadea, zapatak, «Preso egon denaren gogoaren oihartzuak».

Bakardadearen eta muga horien artean geratzen den irtenbidea beste alde bat irudikatzea da, eta, neurri berean, idaztea: «Zure libertatea amestu nahi dut». Liburuaren hasieran lirikotasunak agintzen badu ere, espresionismoaren eraginak estaltzen du bukaeraldea.

2. *Juanjo Olasagarre*

Liburu ederrarekin datorkigu oraingoan Juanjo Olasagarre, 90 hamarkadako poetarik argitaratua. *Gaupasak* izan zen bere lehena, Susan agerturikoa.

Banco Central Hispanok eratzen duen Imajina ezazu Euskadi Saria irabazi zuen *Bizilegearen legeak* deituriko liburuarekin 1995. urtean, eta jada kalean da liburu hori. Idazleak askotan kexu dira, horrelakoetako sarietan irabazitakoak ez duela zabalpen onik-eta, baina liburuaren edonoren esku dago, debaldekoa da, eta Banketxearen edozein bulegotan lor daiteke. Eta lortzera animatuko nuke irakurlea Olasagarrearen merezi baitu.

Bizilegearen legeak fresko nagusi bat da, *Spoon River* poemategiaren antzekoa, ahots aniztuna, erregistro desberdinen agerbi-dea.

Legeak, eta gaiak, zikloka biltzen dira: amodioa, heriotza, desioa, Euskal Herria, tabakoa, bakardadea, bizitza, hautsa, gartzela, denbora, filosofia. Hamaika gai, bizitza osoa, pertsonaia desberdinak, mila ahots, poesia, poesiaren parodia, eguneroko bizitza, idazkera antierretorikoa... Olasagarrek mosaiko nagusia egin du gure herriko bizitza agertzeko eta moldatzeko.

Liburuak badu panpina errusiarraren antza, pertsonaia des-

berdinek gaiez hitz egiten dute, baina lotu eta erlazionaturik, perspektibismoa lortzen dute, han eta hemen, pertsonaia batek beste pertsonaia bati buruz hitz egiten du, beste hartan pertsonaia baten poema liburua transkribatzen da, ondorenean, Gil Beraren liburu bat irakurriz ikusiko dugu beste bat.

Argazki xorta horrek hizkera moldatua agertzen du, bakoitzari berea emanez, joan doanaren belaunaldi baten irudia eskainiz: «Jokatu dugu/ eta galdu, arriskatu/ eta deus ez, bizi/ eta biziuste». Ertz bien artean mugitzen da, beste zerbaiten bila, gizaldra hori.

Lerro hauek idatzi ondoren jakin dut Susak atera diola liburu beraren moldapena. Arrazoia nuen, bada, esaten nuenean ez direla poetak liburu sarituen zabalpenaz fidatzen.

Moldapenak garbiago utzi du pertsonaien agerpena, nor nor den eta zein den testuan betetzen duen papera. Auden euskaratu ondoren, Olasagarrek mantendu ditu zenbait joera agerian: sailka aritzea, poemen narratibotasuna, poemen arteko lotura, eta idazleak aitortu duenez: «Eguneroko bizitzako kontuak agertzen dira eta ez dago metafora askorik. Hizkera erraz eta kalekoa erabiltzen saiatu naiz poema guztietan, kolokiala». Baina metafora lotura bera da, liburuak herrixka bateko bizitza agertu nahi baitu, fresko nagusi bat sortu, eta poesia epikara, epika kolektibora hurbildu.

Ilusioaren eta porrotaren artean bizi diren pertsonaia guztiok badute idazleak bizi izan duen egoerarekin zerikusirik, kutsu autobiografikoa nabaria da. Baina garrantzizkoa ez da hori, idazleak lortu duen maila sinbolikoa baizik: momentu historikoaren isladapena da liburua, baina harago, modernistek nahi zuten moduan herriko errailetan sartu unibertsalizatzeke asmoz, sinboloa ageri da, mundu baten marrazketa: «Denbora badoa eta gelditzen dena disililura da» esan dezakegu guk ere, bizitzari buruz agertzen dituen irtenbide desberdinez osaturiko poema liburu honen aurrean.

3. *Autobiografia eta sinbola*

Juan Ramon Madariagak bere laugarren poema-liburua eman du argitara Alberdaniaren eskutik *Argia sortzen den izartegia* titulupean.

Autobiografia giltzaz poesia egiten duen poetaren nondik norakoa asmatzen ez da zaila. Juan Ramon Madariagak ongi moldatuak ditu bere kezka nagusiak. «Bizitza, amodioa eta heriotza» direla bere idazgaiak adierazi du liburu berriaren aurkezpenean. 1989. urtean bere lehen poema liburua argitaratu zuenean antzekoak ziren hitzak, bere poesiaren gakoa azaldu nahi zuenean. Agian, eta aldaketa ez da txantxetakoa, heriotza jartzen zuen lehen lerroan, autobiografiak (aita eta batez ere ama baitzituen galdu berriak Madariagak) agintzen zuen ordu haietan.

Biografiaren pisua ez da galdu (zenbait poema gaurko honetan egunkari gisa emanak daude data eta guzti), baina esperientzia poesiara, bizikunaren poesiara egin duen hurbilketan badira elementu berriak. Jakin dakigunez, esperientzia poesiaren gakoa ez baita autobiografia, baizik eta autobiografiaren fikzioa, Robert Langbaum-ek eraturiko bakarrizketa dramatikoaren inguruan eratu, simulazioa, beraz.

Madariagak ez du simulatzen, ordea. Hala ere, joera zuzena eta poema ulergarria egiteko ahalegina du esperientzia poesiarekin lotura nagusi. Ulergarria neurri batean, noski, Madariagaren hizkera poetikoaren ezaugarri nagusia baita, Berrizbeitiarekin batera, Sarrionandia urrunegi jarri gabe, zubererako hiztegiaren erabilera fina. Hiztegiak, bere sotiltasun, bere edertasun, bere estetikotasunaren bilakaeran, arazorik sortzen badu ere, irakurketa garaian, joskerak eta egitura poetikoearen sinpletasunak (narrazioa, ritornelloak, egitura paraleloak) eusten diote bat-batean ulertzen den poesiaren zeinuari.

Biografiarekin duen lotura nabarmena da, Txilen bizi zenean

idatzitako liburua baita. Baina berria da neurri batean, estetika-ildoak tinko dirauten artean. Argiaren presentzia izango litzateke lehen berrikuntza: argia, eta ez iluna, sinbolo nagusitzat hartzea, amodioa, bizitza eta natura erruz eta aise sartu diren liburu hone-tan.

Argia sortzen den izartegia hiru zatitan banaturik dago. Guz-tiaren aurretik Carverren poema esanguratsua: Kolibri. Izadiaren aipamena, txorien nagusitasuna lehenik. Baina horren ondoren, edo horren azpian, bada poesia errealitate egiteko gogoia, poesia maitasunaren sinbolo bihurtzeko ahalegina: «gogoan izango ditu-zu/ egun haiek eta zenbat,/ zenbateraino maite zaitudan». Aitor-pen gisako poema liburua beraz, memoriaren ariketa, gogoratze-ko beta eta grina.

Lehen zatia, «Ate zuriak eta zilarra», argiaren gorazarre izateaz batera, poetaren noraezaren agerbide ere bada: bidaiaren nondik norakoak joan eta etorriaren arteko zalantza uzten du bidean. Argiaren bila abiatu da poeta, baina bidean badira garai ilunak: «Lainoak gau gaziaren zaporea du/ zeru okrearen azpiko aidean». Bigarreanean, «Hemisferioak» deiturikoan, poetak geografiaren eta izadiaren menpe jarri du bere burua, pasarte deskribatzaileak (maila sinbolikoa galdu gabe) eta oroimenak hartzen dute toki nagusia. Hirugarren aldeak, «Ezpainetako ispiluak», amodioaren berri ematen du eta maitalea argiarekin batzen da, hasitako bi-daiaren bukaera delarik.

Luis Alberto de Cuencaren poesia aipatzen du idazleak. Haren bizi-poza. Nerudarena ere ez da falta, kontakizunera lerratzen denean, izadiaren poderioa aipatu nahi denean. Eta Valenteren aipuak Madariagak poesia nolako intentsitatez bizi duen adieraz-ten du. Esan genezake, beraz, hiru idazle on arteko koktelak sortu duela *Argia sortzen den izartegia*.

4. Poeta bihurtu zen eleberrigilea

80. hamarkadan poeta gazte asko igaro ziren eleberrigintzara: Felipe Juaristik Nostalgia kutxan gordeta utzi zuen eta Absalonen airearen bila abiatu zen; Omar Nabarrok gurago izan zuen Edorta Jimenez izan eta arrantzale eta nabigazione istorioak kontatzen hasi. Elurra eta dordoka ahaztu zituen Iñigo Aranbarrik, eta ordu-rako 90. hamarkada zen, eta Euskal Herriko arazo politikoaz arduratu zen. Karlos Linazasorok ere izan du betarik poesiatik narraziogintzara salto egin eta berriro poesiara pasatzeko. Esaten zuten ez zela gure arazoa bakarrik. Bazuela horrek zerikusirik beste toki batzuetan gertatzen ari zenarekin. 1996. urtean, aurrez poemak argitaratu bazituen ere, eta liburu bat prosaz eta bertsoz ondu, Pako Aristik eleberritik poesiara eman du saltoa. *Castletown* deituriko poema liburua atera du Erein etxearekin. Ez da lehenengoa poesian, baina lehena da poesia hutsean. Liburu mar-dula, luzea, bere 85 poemekin.

Banuen kuriositaterik liburuak eskaintzen zuena ikusteko. Hitzaurreak, prosa poetikoan sorturiko poema luzeak, ematen ditu zenbait giltza: «Denok daukagu bizitzen lagunduko diguten mapa sekretuen beharra. Hona hemen nirea... Har ezazue, eta abenturazko filmeetan bezala, imajina ezazue ezezagun hilurren zaurituak arkupe ilunean eman dizuen mapa sekretu itxurako paper mordo delako eskuetan daukazuen hau».

Abenturazko diskurtsoarekin hasten denak ez du, hasieratik bukatu arte, deskripzio joera uzten. Ezagutzen ditut beste eleberrigile batzuk poesian ere lan bikaina egin dutenak. Llamazares etortzen zait bat-batean burura. Bere liburuan ere obsesio baten inguruko hausnarketa agertzen zen, tonu bakarreko giro poetikoa sortu nahi zelarik.

Beste horrenbeste gertatu dela honetan esan dezakegu: badago autobiografia joerarik, badago giro berezia agertzeko modurik,

bada ironiarekin jolasteko zaletasunik. Bizitzaren irudia izango litzateke Castletown, azken batean mundu honetan, «derrigorrezko egonaldian» (11. or.) baikaude. Derrigorrezko toki honetan Manuel Rivasen poesiaren tonua (ez da alferrik aipatzen John Berger) nabari diot Pako Aristirenari: pertsonaia hunkigarriak, xumeak, biografia ingurukoak, pertsonaia galduak («Industria birmoldaketa», 12. or.; «Lehiaketa» saila, 27-32. or.; «Children memory», 22-24. or.), giroak eratzen duen munduan galduak direnak, agian, topikotasunez jantziak, eta honek estaltzen du bere tragedia puntua. Zein topikotasun? Bada, Aristik narrazio-gintzan eratu duen erruralismo beltzaren joera ageriegia da hemen. Pertsonaiek badute tragedia puntu bat, baina ez da Aristiren begirada xamurra, gehiago da olgetaria, eta hizkeraren jokoak («Lehiaketa»n adibidez, telebista erregistroaren erabilerak) motel-tzen du pertsonaiak izan dezakeen tragedia.

Intentsitatea falta duela! Bai sarri. Ez ordea, haikuak, (hain aipatuak azkenaldi honetan euskal poesian) erabiltzen saiatzen denean: «Teilatuko erretenetik datorren/ ur-istilaren oroimenak/ euria darien egunen antsian/ biziarazten nau» (45. or). Horixe da kontua bizitzea. Bizi «Natur Zientziak» poemako neskatxaren antzera. Edo «Lehen/Orain»eko ametsen galeran bezala.

Ez dakit baina, lehenaren eta orainaren arteko jokoan ez den poetak agertu duen ikuspegia, tradizioaren eta modernoaren kinkan, soildu eta mehetu. Abilezia du, hala ere, Aristik eta begi zolia modernotasuna (mass medien eragina) giro tradizionalan sartzen eta bien arteko jokoarekin errealitatearen agerpena ehuntzen.

5. Gaurko Euskal poesiaren bidegurutzeta

5.0. Garikoitz Berasaluzeren *Azaro urruneko intifadak* liburuak zenbait kezka sortu dizkit berriki. Liburu ausarta da, ez da zalantzarik, baina bere hartan liburuak gaurko euskal poesiak bizi dituen kezka nagusiak uzten ditu agerian. Ez dakit nola izango den etorkizuna, ez dakit zein poema liburu izango den goraipatua etorkizunean, ziur naiz, baina, liburu horrek ederki adierazi duela gaur egun erabiltzen den adierazmolde baten agerpena.

Onartzen badugu modernitatearen poesia beti dagoela tentsioan, liburuak gaurkoak azaldu ditu. Badakit, neurri berean, ez naizela ari, liburuan agerturiko poesiaren balioaz; idazten hasi aurretik, behar bada, idazleak agerian utzi dituen kezkez ari naiz. Inork baino hobeto, Harkaitz Canoren poesiak baino hobeto, behar bada, liburu honek argitasun eta zorrotasun berezia erakutsi du gauzak nondik nora doazen agertzeko. Hiru-lau gai benetan giltzarriak jarri ditu bidean. Hiru-lau hari marraztuko ditut, bada, nondik norakoak azaltzeko asmoz.

5.1. Idazlearen nagusitasuna

Orain dela gutxi, Umberto Eco testuaren barnean, edo nahi bada testuan gertatzen diren elkarriketetan, agerturiko tentsioez mintzo zela, adierazi zuen testuaren inguruan bazirela idazlearen eskubideak, bazirela irakurleen eskubideak, eta bazirela testuaren eskubideak. Berasaluzek, agian, beste batzuk bezala (eta gogora datorkit Iñigo Aranbarri), idazlearen eskubideetan sinesten du, eta azaldu du nolatan irakurri behar dugun bere testu hau: «Hori da liburuaren giltzarria. Amodiozko poemak dira ia denak, baina amodio hori da Euskal Herriarekikoa eta neskalagunarekikoa. Zaila da irakurketa bikoitz hori lortu ahal izatea, baina horretan ahalegindu naiz». Idazleak badaki zer egin nahi duen, eta egilearen eskubideak zainduz, bere interpretazioa eransten dio testuari.

Badaki idazleak poesia zaila egiten ari dela (89. or), eta agian horregatik eskaintzen du bere irakurketa. Baina egilearen eskubi-deak azpimarratuz, era berean, kentzen zaizkio interpretazio posibilitateak testuari.

Testuak, ez da dudarik, horixe dio, baina horixe bakarrik? Ez dakit zuzen nabilen, baina iruditzen zait idazle gazteengan, bada-goela testuarekiko konfidantza falta, badirudi beren interpretazioak eskainiz, beste batzuk oztopatu egin nahi direla. Baina, beste aldetik, ez dakit irakurleak irakurketa bat egitera bideratuz, ez ote den testuaren, testu honen, aberastasuna mehetzen. Testuan, intifadaz aparte badira sinbolo anitz (zaldiak, udazkenak, itsasoak) irakurri beharrekoak. Badakit sailen tituluek (*Lehendabiziko balak*, *Beste kolpe bat*, alde batetik eta *Amodiozko kanta* eta *Azken tangoa*, bestetik, eta gurariz izendatzen ditut horrela eta ez liburuaren ordenean) bikoiztasuna azpimarratzen dutela, eta neurri berean Silvio Rodriguezen aipuak 35. orrialdean. Badakit, hala ere, gertaeraren eta hitzaren arteko kinkak, ekintzaren eta hitzaren artekoak, kezkatzen duela idazlea: horra Wittgensteinen aipua frogatzen gisa. Baina susmo bat dut: idazleek agertzen dute jarrera bat, hitz potoloak erabiliz (bala, intifada) eta gero testua, beste toki batzuetatik joaten zaie, edo hitz potoloek ez dute testua bere osotasunean estaltzen; irakurleari, ordea, hortik begiratzeko eskatzen zaio. Esaten ari naizena zera da: testuak idazlearen helburuetatik harantzago doazela.

Azken aldi honetan euskal poesiak hiperbolerako duen joerak eratzen du neurri berean Berasaluzeren liburu hau. Egia da, idazleak dioten neurrian, poesia soziala eraberritua dela hemengoa, hain berritua, non ez den soziala, eta beste izen bat merezidu duen: «Poesia soziala bada, aipatzen ditugun gaietatik eta esaten ditugun gauzengatik. Baina idazteko moduak oso urrun daude poesia soziala deitzen den horretatik».

5.2. Surrealismoa

Oso urrun bai. Ez naiz orain sartuko joera horri zein izen eman zaion aipatzen: errebeldea, erradikala, militantea, sistemaren aurkakoa. Egileak azpimarratu du «Negu gorriak» taldearen uzta jasotzen ari dela, eta talde hori ez da kasualitatez horrela deitzen. Baina kantatik urrun dago idazlea.

Abangardiaren joera da liburuan nagusi. Irudi poetikoak agintzen du, eta ene iritziz horixe da liburuak eman duen alderik aipagarriena. Bertso-lerro asko eta asko zizelkaturik agertzen dira, liluraturik uzten gaituzte. Era berean, ez dago berritasunik zailak direla esaten badut. Abangoardian aritu den edonork dakien bezala, abangoardiazko poemak ilogikotasunean eta hausturan osatzen dira. Hala ere, badituzte batasun-hariak, horiek «diskurtsu ulerkorra»ren berak ez badira ere. Adibidez, surrealismoak poemaren barneko paralelotasuna zaintzen du. Ez da hemen horrelakorik egin. Sinboloen errepikazioan eta semantikaren agerpean eman dira pausurik umotuenak. Testuaren ulergarritasuna, nolabait esateko, liburu osoaren sarean agertuko litzateke, sinboloen eta esanahien errekkurrentzian, eta ez poema solteen egituran. Edo, bestela esanda, bertso-lerroak ikaragarri landu dira, eta poemaren arteko hariak ere bai, eta poema-barneko lotura irudien arteko saltoen menpe utzi da.

Surrealismoa azken erromantizismoa den neurrian zabaltzen du Berasaluzek nahiko hedatua dabilen beste ideia bat: bada poesia ustela, eta bada benetakoa. Hark ez luke «errealitatea», edo «errealitatearen parte bat» jasoko. Eta bigarrena litzateke ona. Gauzak ikusteko beste modu bat baino ez da. Ecok ikusi zuen moduan abangardiak beti dute hegemoniko izateko gogoa: «Kaierok Euskal Herriarentzako alternatiba poetikoa eskainiko duela».

5.3. Musikaren heredentzia

«Negu gorriak» taldea aipatu du idazleak. Beste talde batzuk ere aipatzen ditu, Juan Luis Zabalak egin zion elkarrizketan: «Hori bai, azken urteotako euskal rock talde askoren erreferentziak daude liburuan: Negu gorriak, Dut, Kashbad...» eta ni bezalako folk eta blues zale zaharkituek ere ikusten dute Juan Carlos Perezena. Baina, bai, folk zaleak ez gara onenak puntu hau sakontzeko.

Mass medien eragina poesian, horixe bai, horixe aipatu behar-ko genuke. Dylan Thomasek poesia liburutik atera zuen momentutik hona, poesia jendetzarentzat zela ikusi zuenetik hona, geroago eta hestuingo da rock musikaren eta poesiaren arteko lotura. Baina aitortzen dut ez dela hau ene eremua, eta hurbilago zaidan bati itsatsiko natzaio.

5.4. Irakurketak

Juan Luis Zabalak galde egin dionean irakurketaz, Berasaluzek hauxe erantzuten du: «Liburuan Bernardo Atxagaren *Etiopiaren* eta Koldo Izagirreraren *Balizko erroten erreresumaren* arrastoak aurki daitezkeela esan didate. Ez dakit, baliteke hala izatea. Idazteko moduagatik eta esaten duenagatik, Koldo Izagirrerengandik hurbil sentitzen naiz, behintzat». Sintesi-joko hori Harkaitz Canok ere aipatu du inoiz. Baina Berasaluzek dioenagatik badirudi ez zaiola gustatzen Atxagarekin lotzea berea. Horixe dio idazleak, eta beste adibide batean, testuak, ordea, askotan aipatzen du lotura, aitortua izan ala ez, nahita egin ala ez. Hemen ere idazlearen eskubideak eta testuarenak tupust egiten dute.

Surrealismoaren eta espresionismoaren arteko jokoan maisu da Iñigo Aranbarri, elkarrizketan aipatu gabe doana, baina askotan ikusi diot haren itzala (83. or. adibidez) liburuari.

Ezin aipatu gabe utzi Pessoa. Kaiero ez ote da haren Alberto Caeiroren beste izen bat, haren maskara?

Badakit ez dugula poesiaz eta idazketaz askotxorik hitz egin, baina poesiaren atzean diren kezkez eta ardurez aritzea ez ote da poesiaz mintzatzeko beste era bat?

7. Sariketak

Garbi dago aspaldi Euskal Herrian eta euskal literaturan literatur-sariketek, edo leihaketek ez dutela beste inguruko hizkuntzen sistemetan duten oihartzun eta entzun-ahalbidea. Gurean lehiaketako irabazleak ez dira, argitaratu arren, liburudendetan aurkeztu, leihaketekin borondatezko ahaleginak egin ohi dira, baina erantzunik ez du gizartean, edo isildua, edo moteldua da oihartzuna.

Hainbat lehen ezpatek gurago dute ez aurkeztu beren lanak, eta bigarrego mailakoei utzi espazioa zabalik. Ez dakit horrela den, baina txantxetan esan da inoiz lehen izen bat agertu denean etxe berria erosi duen seinalea dela.

Sariketen alde komertziala ere ez da zaindu. Nola zainduko da borondate on hutsez egiten badira? Noizbait frankismopeko egoeraren aurkako usaina nabari diet sariketei: argialetxeak atondu gabe eta indarrik gabe zirenean gurean, haien ordezkatzea bilatzen zuten. Inork ez zuenez euskaraz argitaratzen, leihaketa-
ren bultzatzaile zen erakundeak betetzen zuen argialetxearen papera. Baina gaur egun literaturaren alde komertziala argialetxeen esku dago, eta leihaketen bultzatzaile diren erakundeek argialetxeak plazan ez balira bezala jokatzeko dutela irizten diot. Egia da, beren eskuzabaltasunari esker, idazleren batek ongi merezitako sosa jasoko dituela.

Baina liburuaz zer? Irabazi, saria publiko egin eta hilabete batzuetara dago liburuaren dendaren kantoian, irabaziaren publikatzearen oihartzunak estali direlarik aspaldi, inor gutxi gogoratzen delarik hartaz, bera bezalako beste liburu batzuekin lehiatzen. Haiek

saldu beharrez daude, eta bera, ordea, inolako erantzukizunik gabe aurkitzen da. Berdin da saldu ala ez saldu.

Argi eta ilun, gora eta behera, Arabako Foru Aldundiak Ernestina de Champourcin lirikako hiru sari (1993, 1994 eta 1995. urtekoak) jarri ditu dendetan. Hiru idazle gazte dira, bata ezagutzen dut, besteetaz ezer gutxi dakit. Argitarazio-lana benetan txukuna, irudiz ongi apaindua. Pena da, hala ere, idazlearen berririk ez izana, biografia txiki baten laguntzaz edo aurkezpen sotilaren itzalaz.

Hiru idazle berri, beraz. Agian, plazan ageri dituzten lehen letrak. Hiru idazle, hiru jite. Noizbait, eta gogor jarritz gero, nagusi diren joeren oihartzunak nabari direla esan dezakegu. Baina bakoitzak bere kera berezia du.

Maite Urkiaren *Gariaren usain horia* poema liburu lirikoak dugu, Lizardiren itzalpean kokatua paisaiaren agerpenak bultzatu du hitza, edo hemen esaten den bezala «Solásaren haria». Mehe eta xume, inpresio peko irakurketek osatzen dute poetikaren arnas nagusia. Datu objektiboa dago lehenago, hausnarketa ondoren. Idazleak gogoratzen duen Saint-Exupéry-ren aipuak biltzen du hemengo nahia: ametsa bizitzaren baitan ikusi.

Poetak teknika antzekoa darabil gehienetan: egunerokotasunean oinarrituko printza lotu eta harekin jolastu, hura dastatu, ametsaren mugetan jarrita balitz bezala, eta azken momentuan, isiltasunaren aurrean zintzilik balego legez, irakurlearen irudimenerari utzi irtenbidea. Egunerokotasunaren kinketan agertzen da idazlea, sentimenduen jasoera sotil eta inozoaren bidez, inpresionismoa agertzeko asmoz.

Mikel Taberna bestela dabil *Mendearen ilunabarrean* deituriko poemategian. Hiru arlo nagusi landu ditu. Badira poemak soinuaren legepean dantzari direnak, aliterazioa nagusi bihurtzen delarik, eta Arzeren lehen lana gogora dakartenak: «uRez

oRea/ luRRez laRRua/ haiZez biZia/ Suz Soa/ haTSez minTZoa/
HORRA (G)IZAKI OSOA». Beste batzuk errealismo-kiratsa deitu
izan dena gogoratzen dute, poema narratzaileak, kaleko hizkera
jaso nahi dutenak dira, collage modura eraikiak, zatia nagusi da
eta Euskal Herriko giro hiritarraren islada egin nahi lukete. Ez
dira kopla zaharraren antzera egindako bertsoak.

«Nola erneko da itxaropen-hazirik» bertsoak atonduko luke
poetaren filosofia, inoiz parodiaz janzten dena inguru mingotsa
azaltzeko asmoz. Taberna Irazoki hiruren artean erritmoa ongien
darabilena dela esan dezakegu eta euskararen erabileran ere eskua
erakusten du.

Isabel Diaz Lopezen *Ura badoa maldan behera* liburua espe-
rientzia poesiaren magaletara hurbiltzen da. Eguneko experien-
tziak eratzen du hizkera sentimentala. «Seme, ez ginen izan sor-
tuak/ era honetan sufritzeko» bertsoak emango luke bere joeraren
adibide garbia. Inoiz Lauaxetaren poesia gogoratzen duen testurik
idazten badu ere, «Arratsaldeko txanda» bezalako poemek ironia
fin batez osatzen dute biografia poetiko bat. Joera sentimentalari
ezin dio ihes egin, eta liburuaren bukaerako poemek tonu ezagu-
negia adierazten dute.

Hau da hasiera. Izan bedi jarraibiderik.

BIBLIOGRAFIA

- Jose Felix Azkona: 1996. *Artius*. Bilbao: BBK Fundazioa-Euskaltzaindia.
Mikel Ibarguren: 1996. *Hemen gauak lau ertz ditu*. Zarautz: Susa.
Juanjo Olasagarre: 1996. *Bizilegearen legeak*. Bilbao: Banco Central Hispano.
Janjo Olasagarre: 1996. *Bizi puskak*. Zarautz: Susa.
Juan Ramon Madariaga: 1996. *Argia sortzen den izartegia*. Irun: Alberdania.

Pako Aristi: 1996. *Castletown* Donostia: Erein.
Garikoitz Berasaluze: 1996. *Azaro urruneko intifadak* Donostia: Kaiero-Elkar.
Jose Austin Arrieta: *Gaffitien ganbara*. Kutxa. Donostia, 1996.
Maite Urkia: 1996. *Gariaren usain horia* Gasteiz: Arabako Foru Diputazioa.
Mikel Taberna: 1996. *Mendearen ilunabarrean* Gasteiz: Arabako Foru Diputazioa.
Isabel Diaz Lopez: 1996. *Ura badoa maldan behean* Gasteiz: Arabako Foru Diputazioa.

Idazle omenduak: topa-hitzak



Jose Luis Alvarez Emparantza

Jose Mari Satrustegi

Bitoriano Gandiaga

Juan Garmendia

Dionisio Amundarain

Jose Joakin Azurza

Joan Mari Lekuona

Txillardegi, edo fideltasun baten biografia

José Luis Alvarez Enparantzaz berba egitea, XX. gizaldiko euskal prosagilerik onenetariko batez berba egitea dela, honezkero topiko bihurtu da. Baina era berean bihur liteke topiko, zalantza izpirik ez, Txillardegiz berba egitea fideltasun eta koherentzia ideologikoaz berba egitea dela, hain baita egia, edozelakoa delarik norberak fideltasun eta iraunkortasun horien edu-kinaz daukan eritzia.

Donostian jaioriko José Luis Alvarez Enparantza, hezkuntza fineko mutila (musikan pianoa eta ingeniaritzan industria), eta itxura ez txarragoko gizon dotorea, topikoak topiko, ez zuen zertan izan dena eta oraino badena bihurtu behar, gerrosteko euskal prosaren aitzindarietarikoa bat euskal idazlea izateak inongo ospe sozialik sortzen ez zuenean; Euskal Herriaren historian, batzuentzat onerako eta zenbaitzuentzat txarrerako zeresan handia eduki duen eta oraino ere daukan ETA erakunde armatuaren sortzaileetarikoa bat; eta halaber zenbaitentzat erabat arbuiagarri gerta daitekeen jarrera finko eta sendoaren euslea: «idatzi egiten dut abertzalea naizelako» (hala entzun nion nik duela 25 urte Donibane Lohizuneko Udako Euskal Unibertsitateko lehenengo saio haierarikoa baten).

Ez, ez zuen inongo beharrik horretarako. Gertuko inguruntan bazeukan non ikus eta kopia erosotasun eta lasaitasunari dagozkienetan. Eta halaz ere eutsi zion. Oraino ere badeutso. Eta dirudienez, destainak, arrakastak, atralakak, atarramenduak, pairamen zein pozak direnak direla, eutsi eginen dio.

Ohore zuri, Jose Luis!

Donostian 1929an jaioa, laster hsi zen euskal gauzekin kezkatzen eta 1957an jadanik bere lehenengo liburua argitaratu, *Lehuriaren egunkari ezkutua*. 28 urte zeuzkanean halandaze. Gero, e-eta joera existentzialista beraren barruan *Peru Leartzako* etorri-ko zen (1960), nik neuk lehenengoz irakurri nuenetik beti gozotasun bereziaz gogoratu dudan eleberria. Eta 1965an, liburu bat itxuraz txiki, baina beraren literaturnortasunaren adierazgarririk sendoe-na: *Huntaz eta hartaz*. Prosa-saio labur ederrak, polemikoak eta norberari irakurtzean halako hizkuntza sendo eta indartsu baten jabe izatearen zentzazioa sortzen diotenak. Berba laburrez adierazita, euskal prosa modernoaren lehenengo ekoizpen trinkoetariko bat. Gero nahi beste lan etorriko dira, bai Txillardegirenak berarenak zein beste hainbesterenak. Eta gaur egun aurrera goaz horiek guztiek prosaren garaketan egin dizkiguten lan eta trabailuengatik.

Literatur-ikuspegi hutsez, garai honetakotzat ere jo daiteke 1969an argitaratu zuen Elsa Scheelen, hizkuntza askozaz ahaltsuago batez existentzialista ez baina eguneroko bizitzari begiratzen dion eleberria burutu zuelako. Izan ere, gero etorriko dena, euskal prentsan argitaraturiko hainbeste artikulu izanen da, *Zeruko Argian* batez ere, ez baina bakarrik, eta orobat hainbeste gramatikoliburu euskara batuaren fabore, hala nola *Sustrai bila*, *Euskara batua zertan den*, *Oinarri bila*, *Euskal gramatika*, e.a. Esan ere esan behar delako gerrosteko idazleetan Txillardegi izan dela Euskara Batuak eduki duen zutaberik sendoenetariko bat, Gabriel Aresti, Jon Etxaide, Jon Mirande eta Koldo Mitxelenarekin batera.

Beranduago beste eleberri bi argitaratuko ditu: *Haizeaz bestaldetik* (1979), hasierako joeretara eroaten gaituena, eta guztiz bizia eta arina gertatzen den azkena, *Exkixu* (1988). Horretan, e-

takide baten istorioa kondatzen digu: mutil baserritar baten istorio malkarra etatiar bihurtu bitartean eta burrukan hil arte. Askorentzat, segurutik pertsonaiaren ideologiarekin bat ez etortzeagatik, bakun eta eskematiko. Nire gardiz, baina, zorrotz eta sendo edozein delarik irakurlearen eritzia, pertsonaiaren barnemunduen adierrazgarri bikaina delako eta barnemundu horrek sortzen dizkion kontraesan, zalantza eta sufrimenduenak.

Bere lan gramatikalekin beti segika, beste lan bi ere argitaratu dizkigu Jose Luis Alvarez-ek aspalditxo honetan, *Antigua 1900* (1991), berea den Donostiako auzo horretaz, eta azkenean *Euskal Herria helburu* (1966), apur bat bere bizitza politikoaren bilduma ideologikotzat jo daitekeena, beti ere, berak bakarrik antza daukien prosa zehatz eta askoren ustez ezin gaındituzkoa idatzia. Eta dauzkan 68 urteekin ez dira azkenak izanen.

Ohorezko lerro hauek idazten dihardudala irudi bi datozkit orain burura. Bata, Euskal Telebistak egin dion programa eder baten pianoa jotzen. Jose Luis den gizon gogorra, egin eta sufritutakoengatik, bere baserriko egongelan, sutondoan pianoa jotzen. Bestea, Ameriketakoa da, Los Angeles-en emandako urtearena, Wilshire Avenue-tik ondoko apartamentu-eraikineko nire alboko baten Jone bere emaztearekin batera bizi izandakoa. Elkarrekin egindako hainbeste bidaiaren artean bat daukat bereziki buruan gordeta, Grand Canyon deritzonera eginikoa. Arratsaldeko laurak dira. Goizean ezin izan dugu ezer ikusi, goikaldeko hegi guztiak, begirategiak kokaturik dauden hegiak alegia, lainoz eta elurrez beteta daudelako. Bazkaldu eta gero, ostera ere bertara hurbildu garelarik, ikuskaria ezin sinestekoa, tenperatura-aldaketa bat gertatu da eta 1500 metroko sakonune horretan sarturik dauden hodei guztiak kanoi batek jaurtikiak bezala ateratzen ari dira ziztu bizian. Hor gaude Jose Luis bera, Jone emaztea, Héctor gurekin etorri den nire ikaskide bat eta laurok, aho bete haginekin ezin ezer esanez.

Horrela irudikatzen dut gizon hau, beti gora, beti indartsu,
beti bere herriaren alde lan egiteko prest.

Ohore zuri, José Luis!

Hariren bati tira egin behar eta, Dionisio Amundarainen eskua erakusten duten liburu batzuen hitzaurrea irakurtzeari ekin nion. *Bibliari sarrera orokorra* izenekoari¹. Eraginkor gertatu zitzaidan, zeren eta lehen-lehenengo lerrotik antzeman uste izan bainuen larregi ezagutzen ez dudan gizon baten biziera eta burutapenak ulertzeko gakorik aski. «*Mende askotako antzinatasuna du Bibliak*», zioen, bere aurreneko lerroan, eta nik berrirakurri nuen «*mende askotako antzinatasuna du euskarak ere*».

Geroxeago, «*Biblia ez da zerutik eroria*» diote, eta hala ere, zeruko hitza bide da.

Eta hitzaurre hori irakurri eta berrirakurriz sumatzen dut beste baten hitzaz jabetu eta idatzi duen eliz-gizon euskaltzale baten berezitasunaren indarra: zaharra (euskara, Biblia...) zaharkin bihurtzeko bidea zeharrera mozten asmatzeko –iruditu niri– bere mundualdiaren joerekiko distantzia adina konfidantzaz, mendeen galbahean xehetu ez den izpiritu, mintzaira eta hitzak ematen duen urruntasun eta hurrentasunak emana.

Hala bada ez bada, asmatu du Dionisiok, bederen, euskara jakintzaren arkeologiatik deserrotu eta gaurko munduaz jakin mina euskarari ematen: euskara ikasteko ekimenari herri bat egi-

1.1994an Elizen Arteko Biblia Elkartek argitaratuaz ari naiz.

teko grina uztartzen, herri bat egiteko ekimenari euskara ikasteko grina txertatzen.

Hala beharko, aldi berean, milaka urteen galbaheak eguneroko bizitzaren esperientziari uztartzen asmatu duen liburuen liburua berriro gaurkotzen saiatu baita, beti bezala, beste batzuekin elkarlanean: ez Biblia batuaz jarri hutsarekin, baizik eta elizen arteko, eta dogmen gaineratik izpiritu bati mamitzen lagunduz.

Ezpairik gabe, horren gai zahar eta antzinakoekin orainaldiari iparra emateko behar duen adinako konfidantza duen gizonak, iparra emateko bere ahotsa besteenarekin biltzen dakienak, ez du uste bere jainkoa beste norbaitekin hizketan edo ostaturen batean dagoenik, Saul profetak sasi-jainkoez zioenez, ez eta lotan datzalako edo euskaraz ez dakielako aditzen ez dionik. Zorionez, bere burua goraltzeko joera duten beste askok ez bezala, goraki ez baizik eta guztion belarri eta bihotzera xuxurlatuz idatzi du.

Horregatik, topa egiteko ordua iritsi denez, egin dezagun topa Dionisiok bezala isileko lan handiak egin dituzten gainerantze-koekin. Eta Euskal Idazleen Elkartearen izenean, guztion eskerra adierazteko, urte askoko zoriona opa diezaiegun:

Liburutegien artean Lazkaoko beneditarrenari
euskaltzaleen artean Dionisio Amundaraini
eta edarien artean Benedictineri.

Bizitzak aurrean hamaika bidezidor aukeran jarrita ere, berak erabakitzen du batzutan horietako zein den jarraitu beharrekoa, batzuen parean langak eta hesiak eraikiz, besteak zabalik utziz.

J. J. Azurzari bozgoraz komunikatzeko gaitasuna galerazi zion, ez ordea, adierazi beharrekoa lumaz adieraztekoa. Bazuen zer adierazia eta horretarako gogoia ere bai, eta berez bi baldintza horiek nahikoa dira adierazten hasteko.

Gaztetandik izan zuen komunikazioarekin hartueman. Ikasketez komunikatzeko ezinbestekoa den teknologia guztia menperatzeko modua egin zuen, eta, gaur egun, ikusentzutekoen magia egunero errealitate nola bihurtzen den galdetu ezker, ez da izango gure artean sareak, uhinak eta gehienontzat ulerkaitzak diren transmisio fenomenoak berak baino hobeto ezagutzen dituenik.

Itsasoz bestalde ere –itsasoz bestaldera joatea turismoarekin zerikusirik ez zuen garaiko belaunaldikoa dela kontutan izanda– egin zituen bideak, esan beharrekoa iruditzen zitzaiona toki batean esan eta inguru guztian entzun zedin. Eta hauxe da bere beste ezaugarrietako bat: ez irрати sareak nonnahi jartzeko gaitasuna bere esku izatea, baizik eta esan beharrekoa iruditzen zaiona esatea.

Gaur egun ere, ahotsak laguntzen ez dion arren, ez da isiltzen. Kosta egiten zaio bozgoraz hizketa egitea gaitz malapartatu baten ondorioz aho korda bat galdu zuenetik, baina gaitzak ez zion

jarioa moteldu. Neronek izan nuen hori frogatzeko aukera elkar-
teko kideok bere –eta merezi zuten beste hainbaten– omenetan
egindako bazkarian. Esango nuke hizketarako zailtasun gehien
zituena izanda, bera izan zela dozena biltzen gintuen mahaian
gehien hitzegin zuena. «Aho-korda moztu zidaten ebaketa berean
politikarako bidea ere moztu zidaten», aitortu zidan bere alde
topa egiterakoan irratigintzan ari ginen guztiok zordun gintuela
esandakoan.

Halere, zeresana daukanak aurkitzen du esateko bidea eta ahoz
esaterik izan ez zuena, idatziz esan zuen urteetan. Horregatik
idazleek azaldutako begirunea: luma, mihia bezain zorrotza zuela
erakusteko gaitasunagatik. *Pertinax* izan zen askorentzat *El Dia-
rio Vasco* egunkariko orrialdeetatik. Nahikoa esaten du aukeratu-
tako ezizenak baina horrekin nahikoa ez duenak aski du hark
idatzitakoa irakurtzea J. J. Azurzaren pentsamendua entzuteko.
Ez da isilik egoteko jaioa.

Bizitzak komunikazio mota bateko bidezidorra itxi bazion ere
zabalik utzi zion beste bat eta bigarren hartan egindako lanagatik
hartu du gogoan Euskal Idazleen Elkarteak. Bide hari esker gaine-
ra, denok atera gara irabazle: J. J. Azurzaren ahotsa *betiko* isiltzen
denean hark idatzita utzitakoak hitz egiten jarraituko digu.

Bitoriano Gandiagari

Hilabete dexente joan dira harrezkeroztik. Zenbait idazle omen-du nahi zituzten eta Bitorianori topa bat eskainiko al nion eskatu zidaten. Halako ohore handiari aurre egiteko merezimendu eskasak nituen nik, eta baliabide eskasagoak oraindik: abstemia izan eta, jakina, urez egin behar topa. Eta halaxe egin nuen. Eta, harritzekoa! inork ez zidan ziporik bota halakorik egin nuelako. Uraz topa, alegia. Badaezpada ere poltsikoan neraman nik erantzuna, baina ez nuen arma hilgarri hura atera beharrik izan. Arma hilgarria poema bat zen, behin eta berriz irakurtzen asetzen ez naizen Bitorianoren poema bat: «T'euria, t'euria, t'hozkirri, t'argia...», eurijasaren eurijasaz sorturiko itoginaren erritmoan egindako poema zoragarria. Asmoa nuen esateko ezen itogin hartatik bete nuela neure kopa, eta itogin haren erritmoan opa nahi niola poema idatzi gabe bat, topa baten airean, neure kopa hitzaren itogin gardenez eta oihartzun kristaltsuez betez.

Banekien arma hori hilgarria zela, eta, poltsikotik ateraz gero, gutxi geldituko zirela zutik. Baina, bat edo bat geratuko zen, edo gorra zelako, edo gorrarena egin zuelako, edo poesiak irrist egiten ziolako belarrarian. Eta badakit zer esango zidan: *Nora hoa urez bataiatzera ardoz eta txakolinez blai eginik dagoen poesia?* Eta orduan galdurik egongo nintzen, izan ere gorrari zer erantzun behar diozu, bada? Erantzungo nion itoginez bataiatua izan zela Bitoriano gurea, hala pontean nola Urbiako iturri gardenetan;

erantzungo nion ura txakolin bihurtzera jaitsi zela Urbiatik hiri, fabrika eta kulturara, eta ura ardo bihurtzera igotzen zela aldarera; eta ura ur geratzen zela itoginaren erritmoan, ariman beti, garden beti; baina nola entzunarazi gorrari?

Tira, ordea. Gauzak ez ziren horrela joan. Jaso nuen edontzia, begiratu nuen zeharrera... eta inork txintik ere ez. Orduan, paper bildu bat askatu, plateraren atzean ezkutatu, eta, hiztotelka, bertso bat irakurri nuen. «Gandhi» eta «haga» hitzekin hizjokoren bat egin nuela gogoratzen dut, eta ezer ez gehiago. Eta, orain, han zer esan nuen idatziko al dudan eskatu didate. Eta nik, neure liburuak ere galtzen ditudan honek, papermuturrak artxibaturik izango ditudala pentsatzea...

Horregatixe asmatu dut goiko hori guztia, bestela zer esan ez nekielako. Eta, asmatua bada ere, Bitorianoren omenez hori eta arma gehiago poltsikoan eramateko prest nengoan, jakinik, dena den, nire armek belarri irristakorrak dituztenengan ez dutela inolako eraginik.

Juan Garmendia Larrañagari topa egitea

Aspalditik ezagutzen dut Juanito.

Esango nuke bera izan dela, eta dela, Tolosaldean zubi egin duena aurreko eta gaur egungo idazleen artean.

Gizon jakintsua eta langile oso; ez baitzen alferrik lanean hasi aita Barandiaran eta Julio Caro Baroja jakintsuekin batera.

Adiskideen adiskide, beti edozeini laguntzeko prest azaltzen dena.

Gizon umoreduna –eta nik asko estimatzen dudan gauza da hori–, alaia, niretzak eta askorentzat eredu izan dena eta dena.

Askotan lanarekin etsita, lur jota edo depimituta nagoenean horrelako pertsonak nahi izaten ditut nik aurrean, bultzagile eta adoretuak, jarraitzeko gogoia ematen dizutenak.

Segi horrela eta urte askotan, Juanito.

Ohore ezezik plazer handia zait Joan Mariren omena hitzetan jarri behar hau.

Banuke zer eskertu eta zer goraiapatua ugari. Lehenik eta behin, ahozko literaturaren esparruan erakutsi dizkigun borondate borondatetsu eta lan bikaina. Osaba Manuelek eginari jarraituz, bide berriak irekiz beti.

Baina idazle artean nago, eta batek baino gehiagok pentsa lezake horrek ez duela idazletzarekin zerikusi zuzenik: zezenarenetik ez, baina arbolaren adarretatik heldu diodala gaiari.

Bego. Gatozen orduan idaz-kontuetara. Hor ere banuke zer eskertua eta zer goratua, eta ez aurreko atalean baino gutxiago, inondik ere. Garai prosaiko hauetan poesian tematu izana eskertuko nioke, horretara jarririk, ooren gainetik. Goratu, berriz, poesian beti bide berriak bilatu eta aurkitu izana, ahozkotasunetik gertuko poema itxuraz xumeetatik, pentsamentuaren arakatze eta formulatze trinkoenetara. Eskutxoan pin-txaloetatik ikono eta mimodrametara.

Ez bat eta ez beste, bietan ere maisulan ugari utzi digun arren. Ohorezko topa honetan Joan Mariren alderdi bakarra eskertu eta goraiapatu behar izanez gero, eten gabe, maitasun ezinahalakoz maisutzan egin duen lana eskertu eta goraiapatuko nuke. Ez dut nik Joan Mari irakasle izateko zoririk izan. Baina izan duten guztiek aitortu didate, pozik aitortu ere, nekez aurki daitekeela maisu hoberik. Jakituriaz gainera –eta gainetik– literaturarekiko lilura kutsatzen jakin duelako.

Hori horrela dela jakiteko ez dago, ordea, Joan Mariren gelan matrikulaturik egon beharrik. Ahozko literaturaren nahiz poesia-
ren aitzakian inoiz harengana hurbildu denak ondotxo daki hori. Zernahi dela ere eskatzen diozuna, beti hartuko zaitu irribarre batez, gozo, aholkua ezezik animoa emateko prest beti, abegikor eta apal.

Orain jubilatuta egin omen da –edo dute– ofizialki lan horretatik. Ez gaituzte engainatuko. Ez omen da aurrerantzean irakasle izango. Baina ezagutzen dugunok badakigu maisu izaten segituko duela Ilargiaren Eskolan. Poesiarenean.

Joan Mari, ohore handia da guretzat zu ohoratzea. Segi urte askoan orain artean bezalaxe. Zure lan berrien irrikitan gauzkazu. Ohore eta eskerrona zuri!

J. M. Satrustegi, bi begidun begibakarren artean

Euskarari ez zion leku handirik eskaintzen Nafarroako gizarteak, apeztegitik berriki ateratako apez barrankes gazte bat bere lehen-biziko izkribuak ezagutarazten hasi zelarik. Euskararen gainean erdara dotorean; edozertaz euskara are dotoreagoan. 50. hamar-kadaren hondarrean eta 60.aren hasieran gaude eta 36ko gerlagure kulturari ekarritako etena gainditu gabea zen oraino. Euskarari alproharen ongarri usain sarkorra baizik ez zitzaion sumatzen garai hartan (sutauts eta gasolinaren kiratsa geroago bereganatuko zuen) eta J. M. Satrustegi hasia zen basamortuan predikari. Edo, nahiago bada, bi begidun izaten begibakarren artean.

Kezka intelektualez jantzitako orduko apez batengandik, gut-tienik espero zitekeen halako hainbertzek teologiatik ideologiara egin zuten bidaia. Badakizue, Aquino-koaren *Summa contra gentiles* abiaburu, Simbirsk-ekoaren *Zer egin?* helmuga. Ez dakit Satrustegi gazteak izan zuen inoiz delako orgaren gainera aupatzeko tentaziorik. Ikustekoa zatekeen zer bilakatuko zitzaigun bide horretan abiatuz gero. Kontuak kontu, hark nahiago bere inguru hurbilenean ezarri bere begi erneak, eta ikusten zuenaz gogoeta egin. Irabazle gertatu ginelakoan nago.

Behari gogorra, biltzaile nekaezina eta hedatzaile zalu, horixe On Jose Maria. Nafarroako Artzapezpikutzaren menpeko parrokien antolakuntzak prestatzen zizkion destinoen ariora jauzika, toki bakoitzean atera zuen tamainako uzta: Luzaiden, bereziki, bertsolaritza eta herri literaturaren baratzetik; Urdiainen, berriz, etnografiaren, mitoen eta sinesmenen pentzetik. Barandiaran eta

Caro Barojak irekitako ildoan ondorengo, jakin du bere aurrekoek eman ez zuten urratsa ematen. Notario lanez haratago, ikerlari eta gogoeta-egile zorrotza den aldetik ondorioak ateratzeari ere ekin dio, hemen aurkitu dituenak bertze herri eta kulturakoekin alderatuta.

Euskaltzain, itzultzaile, prentsako kolaboratzaile, zientzi- eta herri-aldizkarien zuzendari, euskaldunen sexuaren deskubritzaile, herri-ipuinen zabaltzaile, euskal testu zaharren biltzaile, fisikaz haratagoko fenomenoek ikertzaile eta, gainera, idazkera prezia-tuaren jabe (horrela aitortzen zitzaion, duela hogeitun urte, *Euskal idazleak gaur* liburuko *Las diez firmas contemporáneas preferidas* izeneko sailean). Euskalgintzaren alor gutti duke arruazuarraren jakin-goseak goldatu gabarik. Aitzitik, urteen poderioz ikuspegia zabaldu zaio, gure artean hain bakan agertzen den polifazetismo arraroari esker. Behin berriz, hark begi bi, eta guk, Tartalo alenok, bakarra.

Akademiako ardura nagusiak utzirik eta erretore lanez pausa eginik, Arruazu bere sorlekuan dugu atzera. Luzaideren kokotzea hainbat urtez gibelatu eta gero (Oi Mendigatxa! *Zu bikala Elizaldean-Pekotxetan-Gainekoletan ekun izan bagintu dozena!*), Urdiain euskal uhartea bilakatu ondoan Altsasu aspaldi erdaldunaren eta Iturmendi belarrimoztu berriaren artean, ez da lan eskasian izanen beretarren altzoan. Ez kalean, ezta etxe barnean ere.

Izan ere, erranak erran, bere onenak eman gabetzat jotzekoa da On Jose Maria. Eta ez naiz Tartaloren burezurraren aurkikuntzaz bakarrik ari. Paper sobera dauzka bere etxeko liburutegian kanporatzekoak. Ideia –literatur-lan?– gehiegi kaxko barnean oraino papereratu bakoak. Baietz, halako batean, denak ustekabetu. Baietz denoi agerian utzi, ostera ere, bera bi begiren jabe dela, begibakar zirtzilen artean.

Hala biz.

Liburuen iruzkinak



Joxe Austin Arrieta

Aingeru Epaltza

Koldo Izagirre

Karlos Linazasoro

Elvira Lindo

Leonardo Sciascia

J. R. Zubimendi

Joxe Austin ARRIETA. 1997. *Graffitiën Ganbara*.

Donostia: Gipuzkoako Donosti Kutxa.

Graffitiën ganbara(tik)

Aspalditik libururik erosi gabeen, paketeak postaz iristen direnean, nonbait hitza (a)ments, paperezko geriza, urduri xehekatu eta ikusi dudalarik Joxe Austin Arrietaren olerki bilduma bat zekarrela tartean, emozioak hartu nau: Koldo Izagirren gisa, Arrietaren poesiek beti harri zizelkatu-berri usaina ekarten didate, «gauerdiko trenetan» irakurtzen nituen *Mintzoen Mintzak* (1989) hura gogoaren zihikatzaile.

Idazle frustratua nabilen une honetan, –salbatoki bakarrak zaintzen saiatu arren, aitzurrak, palangaxkak, palatxoak edo pintura freskoz emokatu ixopak dauzkat eskuartean noski behialako luma baino ardurago– «gutizia» hazten dit Joxe Austin (H)Arrietaren *Graffitiën Ganbara* izeneko bildumak: badakit idazle donostiarraren obretan uztartzen direla segurki, funtsa eta moldea, hitza –gurea...– bere betetasunik gehienean orrialde zurian etzateko orduan. 1995eko Irun hiria literatur saria erdietsi duen honek ere ez du «tirantasuna» galdu.

Olerki bilduman zehar, egileak bidaia batera gomitatzen gaitu: lekuak, solasak, garaiak, euskalkiak, forma eta erreferentzia poetikoak agertzen dira bideko zedarri edo Matxixakoko itsasargi beharrezkoaren antzera. Mississipiko kotoi-zelaietarik, Peru Abarkaren eleak bihikatuz, Maiakowski gurutzatuz Moskuko elurtean, Donostia eta Aturri hegiraino garamatza Arrietaren poesiak, burzoroa sortaraziz eta ohizko pentsa-mugak errautsiz. Bidaia doloretsua bistan

dena, herri izan nahiko lukeen eta herri oso izatera uzten ez duten lurraldean barna: hil-zoriaren kontzientzia azkarra duen hizkuntzak biltzen eta munduaren mila erasoei zabalik atxikitzen gaituen lurrekoak gara.

Barne/kanpoko bihotz-leialtasunaren guda hori, titulutik beretik antzematen zaio bildumari: graffitiak normalean edozein tokitako hormetan publikoki hedatzen dira, eta ez ganbara baten intimitate mutuan. Dikotomia horretatik, ttanttaka, mailu eta burni-kolpe ozen zein ixilka ixurtzen da Joxe Austin Arrietaren olerkigintza guzia, ederki erakusten duelarik barneko eremu dudakorretan, kanpoko ilun-izpientzat irekidura bat badela, eta alderantziz?

Poesia, gure mintzairan behintzat, graffiti ezabakor bat dela frogatzen du donostiarrak, alabaina legea beren alde dutenek noiznahi gorde ditzakete ganbaratik hertsienetan itxuratu hitzen margoak; prekaritaterik handienean badabil herri honen ahots idatzia. Hemen literatura ez da «trukaketa» bat, lehiatzen eta aipatzen den merkatua baino haboroko zerbitu da, urrako bat, sokorri eta elkartasunerako dei latz bat, urgentzia *absolutoan* eraikin baten oinetan pausatzen den harri heze eta mingarri bat.

Poesia hots.

Tigre ehizan

Araitz haraneko belaze batean suertatu zitzaidan artzain harekin solastatzea, eta baita haren mintzoaz gozatzea ere. Ameriketara ibilia zen luzaro, ardiak zaintzen, eta biziki antzematen zitzaion han ikusi eta sentitutakoa oso barrenean zeramala oraindik. Izan ere, Balerdi-ren magaletik Pampara joandako artzain hura apartekoa zen hizketarako eta, bere jiteagatik –grinatsua zen gizaseme hura!–, Argentinara jo genuen eleen poderioz, eguzkia iluntze aldera makurtzen den ordu horretan. Berriketaren une batean, behin arditan zebilela tigre bat atera zitzaiola esan zidan, berari eraso egiteko asmoz, gainera. Bai to!, pentsatu nuen nire baitan. Nirekiko, Martin Fierroren zelai eta oihan zabaletan ez zen halako animaliarik; niretzat, tigrearen barrutia Asia besterik ez baitzen. Esan ere esan zidan, gorriak pasatu zituela tigrea uxatzeko ahaleginean, eskopeta erabili behar izan zuela, eta, finean, tiro hotsak uxatu zuela haren fortunarako. Artzainaren harropuzkeriak sesiorako gogoia piztu zidan: zirika ari zen nirekin, dudarik gabe. Akaso, puma edo beste piztiren bat izan zitekeela ihardetsi nion nik. Baina, ezetz!, hura tigrea zela, bere begiekin aurrez aurre ikusitakoa, alegia,. Gogoan dut oraindik solasaldi samur eta esanguratsu hura, besteak beste, tigrearen kokapenari buruzko nire ustea, erdia ustel zela konturatzerakoan: «Kontxo, eta benetan balego tigrerik Ameriketara?».

Ez dut esanen *Tigre ehizan* liburua osatzen duten hogeitaletatik zeinetan argitu didan Aingeruk artzain harek nigan sortutako zalantza. Baina esan nahi dut, ozen gainera, zalantzarik gabe honakoan, kontaketa landu, ondo girotu eta tentsioz betea idatzi duela Epaltzak.

Aingeruren *Tigre ehizan* azken liburuaren hizkera aurrekoen bide beretik doa, zorrotz eta joria. Zertxobait kamustu duela esango nuke, beti ere, berak zuzen jorratutako ildotik aldendu gabe eta, irakurlearen onerako. Idazten duelarik, exigitu egiten dio bere buruari. Bere lexiko, aditz-joskera, mintzamolde ezberdinen erabilerak... frogatzen dute ongi. Haren lanak ez dira arian irakurri behar, astiro baizik. Bere liburuak –*Ur uherrak* nahi dut gogora ekarri– lehenengo begi kolpetik aise sartzen ez direlako. Dagoeneko sei liburu argitaraturik dituen egilea estuki lotzen zaio baita lan honetan ere, oso berezkoa duen idazkerari: bai forma bai mamiari buruzkoak espreski ihes egiten baitu errazkeria guztietatik. Hizkuntz erregistro aldetik, kasu, artista bat da Aingeru.

Martin eta Martintxoren istorioen berri ematen digu egileak. Martin, 36ko gerra galdu dutenetako bat da. Muga gainditu ondoren Venezuelako oihanetara doa, halabeharrak bulkatua. Zergatikoa zehatz jakin gabe, ehiztari-lanetan jardun behar du, beti ere, gogoeatsatu. Martintxo –Martinen semea, zortzi urtekoa– ama, arreba eta beste senideekin batera –guztiak erbesteratuak– bizitzera behartuta dago Lapurdiko Larresoro erdian, botxeak (alemanak) Frantziatik erretiratzen ari diren une historikoan. Bost urte daramatza aita ikusi gabe.

Beraz, bi espazio ezberdinetan garatzen den nobela baten aurrean gaude, non espazio bakoitzak –Venezuelako oihanak eta Ipar Euskal Herriak– bere ezaugarri propioak eskaintzen dizkion idazleari –ingurune fisikoa, pertsonaiak, lexikoa, ikusmoldeak...– bi istorio konatatuz eleberri bakarra egin dezan.

Kontakizunaren denbora berebizikoa da bestalde, eleberriaren nondik-norakoa ongi ulertuko bada, bereziki, Martintxoren atalari dagokionez. Balio historikoa ere badu horratio, eleberri honek, batez ere, Frantzia okupatuan zeuden euskaldun anitzen pentsaera hobeto ezagu ahal izateko: haien giroa, haien itxaropena noizbait aliatuak –amerikarrak– militarki Espainiaratu eta Franko pikotara bidaliko zutelakoan, naziekin izan zituzten harremanak... Puntu honi dago-

kionez, Martintxoren aitona da, nire aburuz, idazlearen asmoak ederkien betetzen dituen. Esperientziaren ahotsa izanen zen, bada. Baina aitona ez da Latsagain baserrian eta beronen inguruan bilakatzeko den istorioaren protagonista nagusia. Izan ere, aitonari kontrastea eginez, zortzi urteko mutiko baten komeriak kontatzen dizkigu Aingeruk, jende larriaren pentsakizunen ondora inozentziaren ikuspegiak eramanez. Aitak bezala, Martintxok ere bere gora-beherak izanen ditu 1944ko agorrilaren 7an –egun bakar horretan gertatzen baitira paraleloki doazen bi istoriook–, hagitz bestelako tigre bati, metalezkoa berau, aurre eginen ote dion izuturik baitabil.

Eleberriaren atal honi batere meriturik kendu gabe, Venezuelako gertaerak –Martinek protagonizatzen dituenak– iruditu zaizkit interresgarrienak. Oihaneko girotze lanaz merezi du, bai, aipu bat egitea: ederki mugitzen da Epaltza hango piztia eta landaretzaren artean, eta, are ederkiago deskribatzen ditu oraindik ere, pertsonaien arteko harremanak. Martin euskalduna eta Francisco (oihaneko bizilaguna) elkarriketara ari direnean, hitzen gainetik badira, nik uste, bi pentsaera mota –arrazionala eta mitikoa– elkarren lehian ari direnak. Tentsio edo liskar horretatik erdietsiko ditu Epaltzak etekinik hoberenak. Errealismo magikoaren eragina ote?... Nolanahi den, ongi asmatzen du egileak indiarrari geroz eta protagonismo gehiago ematerakoan, neurri handi batean, bera baita giltza euskaldun ehiztariaren ezinegona askatzeko orduan. Tigreak norberaren buruarengan habia paratzen duenean, ez dago ez balarik eta tiro hotsik uxatuko duenik. Halakoetan, indiarra bezalako psikologo baten lan fina erabakiorra litzateke barne-piztiaz libratzeko.

Ezin uka bestetik, egokia dela bi istorioak lotzeko Epaltzak darabilen lokarria. Izan ere, aita-seekek badute antzeko amesgaiztoa gau berean, eta, euren artean milaka kilometroko distantzia izan arren, parekaturik joanen dira euren ikarak, eta tigreak dakarkeen heriotz izuari beldur beraz erantzunen diote biek, adorez beteak, baina. Seguruenik, Sabanitak eginen zuen gisa. Gainerakoa, Adurraren kontura doa.

Koldo IZAGIRRE. 1996. *Gure zinemaren historia petrala*.

Zarautz: Susa.

Urte honen lehendabiziko urratsekin batera etorri zitzaigun nortasun bereziko gipuzkoar honen dastagai berria. Dastagai diot, bai, niri zapatari baten seme historiko haren irudia gogora ekarriagatik, sortzaile pluridiziplinar honek baduelako oroitzapenak halako ikuspegi xamur, erromantiko eta hunkigarriaz erakartzeko ahalmena, baina inolaz ere inozoa, hori ere esan beharra dago.

Ez dugu Koldo Izagirre erraz koka edo defini daitezkeen sortzaile horietakoa, ez dut nik hala uste behintzat. Badirudi gure txokotxo honetan –besteetan bezalatsu, esan behar da, zoritxarrez– ez dugula erraz bere poesia autoargitaratuko lukeen *outsider* tankerako olerkaria eta kritika akademikora hurbiltzen den ikerlariaren lana lotzerik; *Bertan Filmeak* eta horrelako istorioak ez aipatzearren, noski. Baina historiak ari garela, badira, gure mesederako –nahiz eta inoiz eskertu ere ez diegun egiten–, euskal kulturaren ibilbidean halako sortzaile hiperaktibo eta mugikor zenbait, eta nik esango nuke, beldurrik gabe, gure biboteduna horietako bat dugula.

Oraingoan ezuste zoragarria eskaini digu Izagirrek, Iñigo Aranbarriekin batera eginiko lan mardularen ondoren. Ezustea diot, ez baita Unsainek aspaldi argitaratutako historia ederraren gisako gauza objektibo eta akademikoa izan. Nolanahi ere, sorpresa ez da hainbestetarako izan, horretarako izenburuan gorritz idatzitako «PETRALA» ikaragarriak hatz argia ematen baitigu.

Kronika kutsua izanik ere, ez da, berez, kronika bat, ohizko dugun kontzeptuan. Eta, esana dugunez, irizpide akademikoetatik datozkigun historia horien erakoa ere ez. Zer da, orduan, *Gure zinemaren historia petrala* abentura berri hau? Bada, Izagirreren espe-

rientziatik eta honek besteen esperientzietatik bildutako anekdotario subjektiboa dugu, ni lako bati horrelakoak hain kategorikoki esatea zilegi bazaio. Eta horretan du liburu honek bere zerik erakargarri eta indartsuena, Izagirrearen gatz eta piperrak ematen baitio begirada nostalgiko eta, aldi berean, ironiko horri bere bizitasuna.

Baina, kasketaldi hutsarekin konformatu gabe –Koldo Izagirrez ari gara!– behin eta berriro atxikitzen zaio euskara eta euskal kulturaren egoerari, euskal zinearen eza eta gehiegikeriak abiapuntu, haiei buruzko topiko eta argitu bagako erronka ugari plazaratu beharraz eta ezin ahaztuaz irakurlea ohartu nahian. Haurkeria itxurako joko krudelak itsu-mandoka dabilen herri batentzat, alegia, gure bibotedunaren familiako batek aspaldi esana zuenez.

Gauza bat eskertu behar diogu Izagirreri bereziki: gure historia munduan ere badagoela erakutsiaz batera, soilik gurea den zerbait ere baduela gogorarazten oraindik ahalegina egiten duten gutxi horrietakoa izatea, inolako apologismotan erori gabe, euskal kultura eta euskaldunon mesede eta pozerako.

Baliteke, Koldo, zutaz amoroski aritze honek mesfidantzaren bat eragin izana. Nire iritziei buruzko zalantzak argitu nahi dituenak irakur dezala opari interesgarri eta –gainera!– entretenigarri hau, eta honela, gutxi barru, ugari izango gara, Izagirre eta beretarrekin batera, Man Ray maiteko dugunok.

Karlos LINAZASORO. 1996. *Altzeta*.

Donostia: Alberdania.

Altzeta

Gaztea izan arren, ez da Karlos Linazasoro Izagirre (Tolosa, 1962) idazle ezezaguna euskal letren munduan. Liburu honen aurretik beste lau argitaratuak zituen jadanik: *Besterik gabe*, *Albina* (1991), *Ipuin arriskutsuak* (1994) *Zer gerta ere* (1994) eta *Euriaren eskuak* (1995); narrazio-liburuak ditugu lehenengo hirurak eta poema-bilduma laugarrena. Bosgarren honekin kontaketa-alorrera bueltatzen zaigu autorea, baina oraingoan bere lehen eleberria eskaintzen digularik.

Euskararekiko zaletasuna eta idazteko grina familiatik datozkio nonbait: bere aitona, Linazasoro'tar Karla, *Altzeta*, gerra aurrean euskarazko hizlaririk ospetsu eta sutsuena genuen, eta aita, Iñaki Linazasoro, kazetari oparoa eta hogeitakada libururen egile dugu. Nobela honetan, gainera, aitonak Euskal Herri osoan zehar hainbeste zabaldu zuen goitizena liburuaren izenburu bihurtu zaigu: *Altzeta*.

Altzeta Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga aldean Linazasorok asmatu digun herri imajinarioa da. Dena den, kokapen oso zehatza daukala dirudi: Berastegi eta Leitze bitartean, Plazaola eta Urto inguruan esango nuke, garai bateko Andoain/Iruñea trenbidearen ertzean. Leitzaran haranean gora igotzen zen Plazaolak trenetik da, hain zuzen, liburuaren ardatzetariko bat; eta eleberriaren aldi historikoak ere trenarenak adina irauten du: XX. mendearen hasieratik 1953.erarte.

Altzeta, bestalde, trena egitera etorri zirenek sortu zuten. Lanak amaitu zirenean, hantxe bertan geratzea erabaki zuen Miel Anjel Zubeldia andoaindarrak, eta berarekin batera beste talde batek, azkenera orduko 114 biztanleko herritxoa osatuz. Sortzailaren semea –Miel hau ere– izango da, nolabaiteko kronista lanetan, atzeraurrera askorekin herriaren historia bitxia kontatuko diguna. Bitxia diot, magikoa ez esatearren, autoreak horrelako kutsua eman nahi izan baitio nobela honi, baserri giroko paraje arrunt batean elementu *harrigarri* samarrak txertatuz.

Bitxikerietako bat, historia xeblebre baten ondorioz, Aljeriatik Altzetara heltzen den Mohammed «beltza» dugu. Herri osoaren bizimodua aztoratu eta aldaraziko du pertsonaia honek bere pentsamolde, jokaera eta, batez ere, trebezien bitartez. Baina gauzarik harrigarriena, agian, zera da: Mohammed-ek Afrikatik ekarritako basapiztiak eta abere hauekin alzetatarrek Gipuzkoak Nafarroarekin dituen muga malkartsu horietan gauzatzen duten zoo ikusgarria. Ez da bitxikeria txikiagoa horrelako toki baztertu batean Goiko-Benta bezalako señoirita-etxe dotorea antolatu ahal izatea. Burdel arraro horretan gertatzen diren istorioak ez dira erraz sinestekoak, batez ere gerraosteko urte latz, goibel eta errepresibo haietakoak direla kon-tuan izanik.

Karlos Linazasorok, nire ustez, Bernardo Atxagak edota Inazio Mujikak urratutako bideari jarraituz, baserri giroko herri txiki baten gorabeherak (apustu, dema eta guzti), islatu nahi izan ditu. Lekua, egia esan, erakargarria da; nekazaritza ezezik, meatzeak ere egoteak idazeremua hedatu egiten dio; trenaren historia bera ere interesgarria da. Alabaina, paisaia errealista horretan gorago aipatutako elementu magikoak kokatu gura direnean datoz zailtasunak eta ezinak. Izan ere, oraindik historia aski hurbila baita, Tolosa eta inguruetakoa pertsona eta tokien aipemanak oso zehatzak ditugu, eta garaiko gertakari asko ezagunegiak egiten zaizkigu era horretako «nabar-menkeriekin» besterik gabe uztartu ahal izateko. Liburu honek, bada, sinesgarritasun aldetik izango luke bere alderdirik ahulena.

Badu, haatik, alderdi positiborik ere. Garaiko ohiturak, gertakariak, pertsonaiak, kirolak eta kultur-giroa xehetasun handiz azaltzen zaizkigu: adibidez, eskiak gure artean eman zituen hasierako urratsak, edota Tolosan gerra aurretik Emeterio Arrese, Ixaka Lopez Mendizabal, «Lizardi», Antonio M^a Labaien, Jon Andoni Irazusta, Pepe Eizagirre, «Aitzol», Pio Montoya eta abarrek osatzen zuten talde euskaltzale eta ilustratua. Hizkera joria izanik, ulerterreza da gehienetan; adjetibazioa, aldiz, aberatsa eta egoki samar erabilia. Pertsonaia batzuk aski ongi taxututa daude: aipaturiko Mohammed edo Don Justino maisu hunkigarria, esaterako. Beraz, liburu biribila izateke, atseginez irakurtzen diren horietakoa dugu.

ENKARNI GENUA

Elvira Lindo. 1994. *Manolito Gafotas*.

Elvira Lindo. 1995. *Pobre Manolito*.

Elvira Lindo. 1996. *¿Cómo molo! (otra de Manolito Gafotas)*.

Madril: Alfaguara.

Ba ote dago Carabanchel Alto-n, edo Barakaldon, edo Errenterian, Manolito Gafotas bezalako bederatzai urteko mutilik? Berak bezala pentsatzen duenik? Berak bezain hizkera heldua erabiltzen duenik? Ez dut uste. Nik gutxienez ez dut ezagutzen. Mutil hori Elvira Lindok asmatu eta sortutako pertsonaia da. Baina badaude hiri handietan edo herri industrialetan Manolito Gafotas bezala bizi direnak, eta baita Manolitok sentitzen duena sentitzen dutenak ere. Baita inguruko helduak bezala dabilzanak ere.

Horregatik hiru liburu hauek irekitzen ditugunean begi-bistan ispilu bat azaltzen zaigu. Hor, gure haurtzaroa ikus dezakegu, baita gizaki heldu bezala daukagun zenbait jarrera ere.

Zeren Manolitorekin batera, liburu hauetan beste pertsonaia asko azaltzen zaigu:

Ama, noizean behin zaplasteko bat banatzen duen horietako bat; asko maite-gorrotatzen duen anaia txikia: *el imbécil*; beti etxetik kanpo, kamioiarekin gora eta behera lanean dabilen aita: *Manolo*; Manolitok egiten dituen bihurrikerien lagunkide handiena: *el abuelo*; auzoko eta eskolako lagunak: *Yihad*, *Susana bragas sucias*, *El Orejones*, bakoitza bere ezaugarriekin; tropel guztiarekin etsita dagoen eskolako andereñoa: *Sita Asunción*; eskolako psikologoa: *Sita Espe*, eta abar.

Liburuok irakurtzen dituzun bitartean burura galdera bat etortzen zaizu: nori daude zuzenduak? Neska-mutilei gustatuko ote zaiz-

kie? Dirudienez bai, gustukoak dituzte. Dena dela, neronek ere oso gustura irakurri ditudala aitortu behar dut, eta zenbait unetan galdera batzuk egin dizkiot neure buruari. Baina batez ere barre ugari egin dut, barre algara.

Eta hori, gaur egun, ez da txantxetako gauza.

Leonardo SCIASCIA. 1996. *El caso Aldo Moro*.
Barcelona: Destino, Áncora y Delfín nº 773.

Hitzeko katabuta

Denbora luze ez dela irakurri ahal izan nuen, Hego Euskal Herriko politika patetikoaren protagonista baten ahotik hartua –ez naiz oroitzen nor zen, eta kasurako berdin da–, hitzez hitz ez bada ere, honelako ideia adierazi nahi zuen baieztapena: «Estatuko botereak lasai daude Ortega Lara garrantzi gutxiko morroia delako. Besterik litzateke handi-mandi horietakoa balitz...». Mororen heriotza bukaera moduan eduki zuen Italiako historiako pasarteari buruzko liburu hau bukatzen ari nintzela irakurri ere. Ai ai ai, pentsatu nuen, agian bestela esango zuen pertsona horrek liburu hau irakurritz gero...

Sciascia hagitz maite dut. Zabalean harturik politika-fikzioa dei genezakeena higuin duten ustezko eskisitoek zenbat eta literaturmota honekiko erdeinu ageriago, eta maiteago. Euskaraz egin izan da saiorik tipo honetan, eta eskisitoek liburua aurpegira botatzen dizute, askietsirik, narda keinua ezpainetan: «Bah! Vazquez Montalbán bat...». Eta orduan eta are eta maiteago Sciascia. Baita Montalbánentzat ere, berak aitortua.

Liburu hau ez da fikziozkoa, baina, Aldo Moro bahitu lehenik eta gero hil zuten pasarteari buruzko gogoeta baizik. Zehatzago esanda, Morok idatzi gutunen eta Italiako DCko agitarien edotariko erantzunen azterketa semantiko eta semiologikoa zorrotz eta fina, Moro biziarekin lotzen zuen haria noiz moztu zen atzemateko asmoz. Noiz moztu zen bakarrik ez; noiz, nola eta nork. Eta, batez ere, zer hitzezko jantzia josi zuten, poliki poliki, erabaki ikaragarriaren berri

emateko, lerroartean, beti ere. Nola prestatu zioten hitzezko kataburta. Hau ere baita, finean, hizkuntzaren erabileretako bat, denik eta beldurgarriena, beharbada.

Sciasciak bertatik bertara segitu ahal izan zuen Italiako politika, bera diputatua izan zelako. Eta nabari da; hango klase politikoaren katramilak horren ongi ezagutzen dituen batek baizik ezin zezakeen honelako libururik idatzi. Sciasciaren ikuspegiaren arabera, interesgabetzat edo inuxentetzat zertan harturik ez duguna, *Brigada Gorririk* ez ziren heriotzaren eragile materialak baino izan. *Bestek* garbitu zuten Moro.

Bahiketa guztiak ez dira berdinak, ez helburuz, ez moduz, ezta bukaeraz ere. Inguruabarrak dira diferenteak. Baina bahiketa politiko guztiak berdintzen dira *Estatu Arrazoia* deitzen den hori, Lovecraft-en munstroen antzera, kontzeptu zehaztugabea izatetik biziok baino biziagoa den *zer* bat izatera pasatzen denean. Berriki irakurri dut Fujimorik ibiltzen zituen lehengo eraso-hipotesietan bahituen arteko %30ek bizia galduko zutela –denok lurrera, guretarrak datoz eta!– jotzen zela. Eta bahituetan bazen nor zen jendea, izan ere. Moro gizagaixoa bakarra zen, eta bere bihotzak *zer bizi* errebelatzen den munstro horrenak baino ahilago egiten zituen taupadak.

Hausnartzekorik ematen duen liburua, *ezta?*

Joxe Ramon ZUBIMENDI. 1997. *Bidezkoak*.

Oiartzun: Sendoa.

Bizilegezkoak

Liburu irakurgarria Joxe Ramon Zubimendi usurbildarrarena, *El Diario Vasco* egunkariko zutabe batean eta 1994tik 1996ra bitartean argitaraturiko eritzi-artikuluez gain, «Labaien, hitz bitan» izeneko dokumentalaren gidioa ere badakarrena. *Bidezkoak* izenburupean askotariko gaiak lantzen ditu, jori eta doi landu ere, aldiz umore pipertsuz, aldiz haserre-puntu batez; berriak nonnahi, eta baita zahar ustekoak berritan emanak ere. Artikulu labur samarrak, ez horregatik berehalako batean eta halamoduz irakurtzekoak. Hizkeraz den bezainbatean, ezein mordoilokeriatatik nola errezkeriatatik itzuri eginez, erraza eta jatorra dugu Zubimendirena, hots, etorri badatorrena eta ibili badabilena. Bizkorra, bizkorrik bada eta trebatua, trebaturik bada, Gandiagaren antzera euskeraren etorkizunaz baino euskeraren orainaz arduratzenago baita. Izenburu ezin egokiagoaren pean orri zuriari aurre egiteko tenorean hor dakusakegu egilea ausart sentiminean, betiko bideari lotuta eta, besterik ezean, kosta ahala kosta goiari gogotik eutsita, hitzaren dohaia bezala idazkeraren nortasuna uneoro bermatuz.

Lizardik eta Jean Etxepare medikuak, nork bere ahaleginean eta garaian bere onenak eman zizkioten orduko kazetaritzaren lur-puxka goseari. Halatsu gaurkoan Joxe Ramon Zubimendik ere.

Bidean oztopatu ondoren altxatzen dakitenentzako edo hori ikasi asmo dutenentzako, zakur-ametsak uxatuz, hona hemen *Bidezkoak*.

Hegats 15/16

1997ko urrian Nafarroan
inprimatu zen






EJSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

15/16



Literaturbideak

BITORIANO GANDIAGA

Ariketa

JUAN RAMON MADARIAGA

7 poema

WILLIAM FAULKNER

Arrosa bat Emilyrentzat

RAYMOND CARVER

Poemak

KOLDO IZAGIRRE

Lamiaren zain

Kritikabideak

AURELIA ARKOTXA

Arestiren hiri mitikoak

AMAIA ITURBIDE

Historia txiki bat

JON KORTAZAR

1996ko kaiera

